


Enpleguaren bilakaera Euskal Herrian



Jardunaldi

Sozio-Ekonomikoa

2004ko Apirilak 23



ENPLEGUAREN BILAKAERA EUSKAL HERRIAN

IPAR EUSKAL HERRIKO BILAKAERA SOZIO-EKONOMIKOA AZKEN 20 URTE HAUETAN.	5
Bilakaera sozio-ekonomikoa.	7
Jarduera ekonomikoa.	10
ENPELGUA HEGO EUSKAL HERRIAN AZKEN HIRU HAMARKADATAN.	21
1977-1985, fase atzerakorra.	22
86-91, hazkunde garaiak.	23
92-93, bi urteko krisi sakona.	24
1994ean hasitako hazkunde zikloa.	26
NEOLIBERALISMOA ETA BERE ERAGINAK LAN INGURUNEAN.	29
Ekonomiaren terziarizazioa.	29
Deslokalizazioa eta azpikontratazioa: mundu mailako merkatuan lehiatzeko enpresa estrategia.	31
Lan malgutasunaren handitzea eta zabaltzea.	32
Soldaten murrizketa nagusitzen da.	35
Lan merkatuaren desregulazioa eta prekarietatea.	37
ERANSKINA	
EKONOMIKOKI AKTIBOA DEN BIZTANLEGOAREN SAILKAPENA.	45
Hego Euskal Herriko lan munduaren egoera.	46

Ipar Euskal Herriko bilakaera sozio-ekonomikoa azken 20 urte hauetan

Lehenik aipatu behar da azterketa ekonomiko arras gutti egin direla Ipar Euskal Herriaz eta gaur egun 90. hamarkadan lehen aldikotz Pays Basque 2010 ekimenaren karietara egin zen ikerketa bilketa baliatzen da oraindik oinarri gisa bai eta INSEEk, Frantziako Estatistika Erakundeak, 10 urtetarik kaleratzen dituen erroaldaren emaitzak. Ez dugu deus Enpresek sortu eta banaturiko aberastasuneri buruz (BPG, lansariak). Horregatik hemen duzuen txostenak gabezi ainitzez pairatzen du eta ikerlari eta datu eskasez ezinezkoa zaigu argazki zuzen bat ematea.


Bertzalde hemen duzuen zatiketa geografikoa lurralde historikoz egin bada ere emaitzak ez dira beti arras zuzenak. Alabaina, trataturiko emaitzak kantonamenduka direnez eta zenbait kantonamenduk bi herrialdeetako udal herri kontatzen dituztenez, emaitzak doi bat okertuak dira. Adibide gisa, Hazparneko kantonamendua Lapurdin kokatua bada ere bere baitan duen Heleta herria Behe Nafarroakoa da, ondorioz herri honen biztanleen datuak Lapurdin kontatuak dira Behe nafarroan izateko partez.

Azkenik Euskal Herri osoko argazkia ematen duten lanak arras urriak dira, hein handi batez lurralde bakar honentzat 3 estatistika zentro desberdin baitira eta datuak kalkulatzeko moldeak ere usu desberdinak baitira. Hala ere Udalbiltzak iaz kaleraturiko lana goraiatzekoa da, biztanleriari buruzko zenbait datu homogeneizatu baititu azken 125 urte hauentzat. Zoritxarrez deusgutti dugu emaitza sozioekonomikoei buruz eta hola-ko ikerketa burutu nahi ditugunek Euskal Herri osoko behategi baten beharra altxatzen dugu maiz.


Hasi aitzin, komeni da demografiari buruzko zenbait datu ematea.

Biztanleriaren herrialdekako banaketa, 2001¹.

Euskal Herriko biztanleriaren banaketa, lurraldeka, 2000an
BAXE



Biztanleriaren bilakaera herrialdeka, 1877-2001



Euskal Herria, datuen talaiatik. Udalbiltza 2002.

¹ Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoko emaitzak 1999koak dira.

Emaitza hauek argiki erakusten dute Ipar Euskal Herriko (IEH) herrialdeen garrantzia (%8.8) biztanleria osoari begira. Gaur egun Ipar Euskal Herriak 262.600 biztanle kontatzen ditu.

Azken 25 urte hauetan biztanleria %15 hazi da, EH-ko osoarena %5,35 emendatu den bitartean. Hazkunde hau exogenoa da; erran nahi baita, migrazio-saldo positiboari esker gertatzen dela, eta ez bertako sortzei esker, berezko saldoa negatiboa baita. Etorritako biztanle gehiena Lapurdiko kostaldean kokatzen da. Hego Euskal Herrian, 60. hamarkadan ezaguturiko immigrazio mugimendua gelditu bada, Ipar Euskal Herrian azkartuz doa. Jinikoen proportzioa handia bada ere ez dira erretretadunak gehienak, haur bat edo birekin osaturiko familia gazteak baizik. Dentsitateari so eginez, IEHan, 88 biztanle dira kilometro karratuko, 77 zirelarik 1975ean. Euskal Herri osoa hartuz kopuru hau 138.6koa da.

Ipar Euskal Herria hiru dinamika desberdineko eskualdez osatua da.

Lehenik, Baionatik Hendaiaraino biztanle gehien kontatzen eta azkarki betetzen ari den Lapurdiko kostaldea dugu (biztanleriaren %65.5). Ondotik, hazkunde demografiko handiena ezagutzen ari den Lapurdiko barnealdea (%19); eta, azkenik, jendetza galtzen ari den Nafarroa Beherea (%9.4) eta Zuberoa (%5.1) (barnealdea deituko duguna). Dinamika horiek bereizten dira bai demografia, ekonomia zein etxebizitza arloetan.

BILAKAERA SOZIO-EKONOMIKOA

1. Emaitza orokorrak

1982tik 1999rat IEHko biztanleria aktiboa (enplegudunak eta ofizialki lana bilatzen dutenen zama) %17 igo da.

Biztanleria aktiboaren emendioa biztanleria osoarena baino azkarragoa gertatu da (+ %17 eta +%11, hurrunez hurren). Gaur egun 114.346 biztanle aktibo dira. 1982an 100 biztanletik 41 ziren aktiboak, eta 1999an 44.

Joera horrek bi azalpen nagusi ditu: alde batetik, mendebaldeko herri gehienetan bezala gertatzen ari den biztanleriaren zahartzea, eta bertzaldetik, jende aktiboen migrazio-saldo positiboa.

Populazio aktiboaren banaketa populazio osoak izan duen bilakaera bezalakoa izan da.

Lapurdik biztanle aktibo gehienak biltzen ditu (%85,6) eta 82tik aurrera kopurua %22,4 igo da. Kostaldeak Lapurdiko aktiboen hiru laurdenak bildu arren, Lapurdi Barnealdeak aktiboen kopuruaren emendio azkarragoa izan du (+%34,6). Lapurdin, 97.920 biztanle aktibo ziren 1999an.

Barnealdeak aldiz, hogeni urtetan, 1.324 biztanle aktibo galdu ditu, eta kopurua 16.425erak pasatu da. Hala ere 1990etik galera emekitu da. Honela, Nafarroa Behereak biztanle aktiboak irabazi ditu Garazi, Baigorri eta Iholdiko kantonamenduetan.

Sexuen arteko desoreka murrizten ari da

1982an desoreka nabarmena zen emazte eta gizonen artean, honela biztanleria aktiboaren %58,4 gizonezkoak ziren eta, emazteek %41,6 ordezkatzen zuten. Artekoa murriztuz joan da eta gaur egun gizonek %52,6 biltzen dute eta emazteek %47,4. Biztanleria jardunaren emendioa (%77,5) nagusiki emazteek eragin dute. Bilakaera hori azaltzeko, mendebaldeko herrietako gizarteak izan dituen aldaketak aipatu behar dira: mentalitateen aldaketa, emazteen emantzipazioa eta ekonomiaren tertziarizazioa, bertzeak bertze.

Biztanle aktibo gazteen (15-30 urtekoak) kopurua murriztuz joan da, eta biztanle aktibo adintsuena (45-60 urtekoak) emendatuz.

15-30 urteko biztanle aktiboen kopurua %15ez murriztu da azken 10 urte hauetan, eta 45-60 urtekoena %36 emendatu da. 1990ean, adin-klase bakoitzak biztanle aktiboen %26a biltzen zuen, baina gaur egun adin-klase zaharrena nagusitzen da (%33).

Kantonamendu batzuetan bilakaera horiek biziki sakonak dira. Alabaina, Atarratze-Sorholuzeko kantonamenduan biztanle aktibo gazteen kopurua %36 murriztu da eta zaharrena %10 handitu.

Egoera hau aski iluna da etorkizunari begira, eta lan-eskuaren defizitaren gaia pausatuko da Ipar Euskal Herrian etorkizun hurbil batean.

2. Langabezia

Langabezia (biztanleria aktibo ez okupatua) azkarki emendatu da

1982tik 1999ra bitartean populazio aktiboa %17 igo bada ere, biztanle ez okupatuen kopurua hein arras azkarrago batean emendatu da (+%47,3).

Langabetuek populazio aktiboaren %10,3 ordezkatzen zuten 1982an eta %13 1999an (14.855 langabetu). Geroztik tasa hori etengabe txikituz joan da, 2000. urtean %10eko marra azpira pasatuz eta gaur arte %9 eta 10 artean ibiliz..

Langabezia-tasa azkarra hiri-inguruneetan

Langabezia-tasen esberdintasun handiak dira eskualdeen artean, Lapurdiko kostaldea gehien hunkituriko lurraldea delarik (%15,2). Kostaldeak langabetuen %77,1 biltzen ditu, Lapurdi barnealdeak %14,5 eta Barnealde sakonak %8,4. Populazio osoaren pisu erlatiboa begiratzean, ohartzen gara langabetuen kontzentrazioa kostaldean goragokoa dela (langabetuen %77,1) populazio osoarena baino (biztanleria osoaren %66,5).

Egoera hau azaltzerakoan, ez da pentsatu behar barnealdea egoera on batean denik enpleguaren aldetik; alderantziz, kostaldeak, lan-merkatua dinamika azkar batean denez, aktiboen jario handia erakartzen du, eta ondorioz sortzen den enpleguen kopurua ez da nahikoa izaten aktibo guztiak enplegatzeko.

Alderantzizkoa gertatzen da barnealdean: lansarituen enplegu-merkatua murrizten ari denez, gazteak kanpora joaten dira edota, ahal dutelarik, barnealdean gelditzen dira etxaldeen segida hartuz. Batzuk, barnealdean Frantziako bertze lurraldeetan gertatzen dena baino gazteen plantatze handiagoaz enplegu-dinamika eskasari lotzen zaie. Diotenez, guraso laborarien segida hartzen dute, bertze alternatibarik ez baitute tokian berean gelditu nahi badute. Zuberoan, Maule-Lexarre kantonamenduko langabezia-tasa azkarragoa (%10) kantonamenduak duen ezaugarri industrialari lotzen zaio. Zapatagintzaren krisi larriak azkarki jo du Maule aldea, langabeziaren kopurua hanpatuz.

Emazteak gizonak baino gehiago hunkituak dira.

Herri garatu guztietan bezala, emazteak gizonak baino gehiago dira hunkituak langabeziak. 1999an, 10 langabetuetarik ia 6 emazteak da. Emazteen langabezia-tasa %16koa da, gizonena %10ekoa delarik. 1990an, tasa horiek %16 eta %8koak ziren; beraz, gizonen egoera txartu egin da, emazteen langabezi-tasak altua izaten segitu duelarik.

Zuberoan, emazteek langabetuen %65 ordezkatzen dute. Tasa altu hau 80ko hamarkadan Zuberoak jasandako zapatagintza-industriaren krisiaren ondorioz kanporatu behar izan ziren langileak —emazte jostunak, bertzeak bertze— kontuan izanik azal daiteke.

Langabezia-tasa altuak gazteen artean

Kostaldean zein barnealdean, gazteek dute langabezia-tasa gorena jasaiten. Honela langabezia-tasaren batez bertzekoa %13koa delarik, 15-24 urtekoena %27koa izan da 1999an.

Epe luzeko langabezia langabetuen erdia baino gehiagorentzat

Urte bat baino gehiagoko langabezia jasaiten dutenen proportzioak altua izaten segitzen du 1990etik aurrera: langabetuen erdia baino gehiago ordezkutzen du. Zuberoaren kasua azpimarratzekoa da: 1990an epe luzeko langabeziak okupatu gabekoen %40 hunkitzen bazituen, tasa hori %60ra heldu da 1999an.

3. Biztanleria okupatua (landunak)

Azken 20 urte hauetan landunen kopurua %13,5 (+11.848 landun) goratu da, azken hau 99.491 biztanle aktibo okupatuetara ekarriz. Enplegu-sortze garbi hori aski apala da langabeziak denbora berean izan duen gorakada ikusiz (+%47,3).

Beren herrian lan egiten dutenen kopurua murriztu egin da

Gero eta jende gehiago herritik kanpora doa lan egitera. 1982an, 10 biztanle aktibo okupatuetarik 6 beren herrian ari ziren lanean, gaur egun 4 dira horrela dihardutenak. Kasu erranguratsuen Lapurdi barnealdea da, 10etarik soilik 3k baitute beren herrian lan egiten; 2k Uztaritzeko kantonamenduan. Pentsa daiteke gainerako gehienak kostaldera doazela egunero lan egitera.

Bertzalde, 1982an, barnealdean 10 langileetarik 7 beren herrian lanean ari baziren, gaur egun soilik laupabortz ari dira horrela. Bilakaera hau lot daiteke laborantzaren galerarekin eta eskualdeko hiri-zentroetan gertatzen ari den 3. sektoreko aktibitateen garapenarekin.

Kostaldean, Baionako kantonamenduaren kasua aipa daiteke, hor bizi diren 10 landunetarik 6k kantonamenduan bertan lan egiten baitute. Biarritzeko eta Angeluko kantonamenduetan proportzio hauek apalagoak dira (%49 eta %37,5, hurrenez hurren). Horrek, Baionak duen enplegu-dinamika erakarkorra erakusten du. Hone-la, azken urte hauetan jendez azkar bete den Hiriburuko kantonamendua lo-tokia bertzerik ez dela erran dezakegu, landunen %86,4 egunero herritik kanpo lan egitera baitoaz.

Hendaian eta Ipar Baionan, aipatzekoa da eskualde edo departamendutik kanpo lan egiten dutenen kasua. Hendaian, eskualdetik kanpo ari direnen proportzioa %11koa da (%3,4koa kostalde osoan). Pentsa daiteke horietarik ainitz Gipuzkoara joaten direla egunero lan egitera, gipuzkoar ainitz baitira Hendaia eta Urrunaldean etxeak eraiki dituztenak.

Gisa berean, Ipar Baionako kantonamenduan, departamendutik kanpo ari direnen parte handia da (%20,7) kostaldeko egoerarekin parekatzen badugu (%5,7). Pentsa daiteke Bokaleko jendea, hurbil den eta lan-dinamika gorakorra duen hego Landetako eskualdera lan egitera joaten dela, egunero.

Biztanle aktibo lansarituen nagusitasuna azkartu da

1982tik, Iparraldeak 15.182 aktibo lansaritu irabazi ditu (+%23,2) eta 3.334 aktibo independente galdu (-%15,0). Lansarituak aktiboen %81 ordezkutzen dute (1982an, %74,6) eta independenteek beraz, aktiboen %19 (1982an, %25,4).

Egoera hau herri aberats anitzena bezalakoa da: ekoizpen-sistemaren aldaketak lansarizatze masiboa ekarri du mende honen hastapenetik.

Barnealdean, laborantza eta ofizialgintzak pisu azkarragoa duenez, haien kontura ari direnen proportzioa azkarragoa da: Nafarroa Beherean %37,3 eta Zuberoan %30,6. Hala ere, lansarizatze-prozesua erritmo biziagoan jasan dute. Honela, 1982an, Nafarroa Beherean aktiboen erdiak baino gehiago (%54,3) bere kontura ari ziren, eta %40 Zuberoan. Kostaldean, aldiz, lansarizatuen nagusitasun azkarra (aktiboen %85) eskualdeak duen 3. sektoreko aktibitateen kontzentrazioari esker (administrazioak, osasun-zentroak, merkataritza...) uler daiteke.

Prekaritateak lansaridunen %16 hunkitzen ditu

Azken hamar urte hauetan horien kopurua %60 igo da, lansaridunen %10etik %16ra helduz, erran nahi baita 12801 enplegu prekario eraginez.

Enplegu prekarioen artean, iraunpen mugatuzko kontratuak³ nagusitzen dira (%58,6). Enplegu lagunduen partea (%16,8) ere azpimarra daiteke. Estatu frantsesak enplegu horiek epe luzeko langabetuen kontratazioa bultzatzeko ("Contrat Emploi Solidarité") sortu ditu, baita berrikitan gehien hunkituak diren gazteen enplegua⁴ sustatzeko. Prekaritateak emazteak jotzen ditu nagusiki (prekarioen %52), 10 urtez emazteen partea 6 puntuz handitu da.

JARDUERA EKONOMIKOA

1. Aurkezpen orokorra

Enpresa txikiko ekonomia

Ipar Euskal Herriko paisaia ekonomikoaren ezaugarri nagusi bat : sektore merkataleko eraikuntzen neurri murrizta. 10 enpresetarik 9 baino gehiagok 10 langile baino gutxiago ditu (%95,1).


Enpresa arras tikiak dinamikoenak dira. Honela, langilerik gabeko enpresek parkearen 2/3-a osatzen dute eta horiek dira gehien hazi, kopuruz (+5334) zein proportzioz (+%53).

Sortu diren enpresen %98,7 20 langile baino gutxiagoak dira eta %84,4 langilerik gabekoak.

Zerbitzuen nagusitasuna

Herri kapitalista zahar gehienetan gertatzen ari den fenomeno berbera dugu Ipar Euskal Herrian ere, alegia, 1. eta 2. sektoreko enpleguaren murrizketa eta 3. sektorekoaren emendio azkarra. Bertzalde, zerbitzuen kontzentrazio handia dago Ipar Euskal Herrian, eta industriari doakion enpleguaren partea arras apala da, bereziki Hego Euskal Herriko lurraldeekin konparatuz.

Sektoreen banaketa, herrialdeka, 2001 (%).



Talde sozioprofesionalen araberako bilakaerak informazio interesgarri batzuk agerrarazten ditu. Hirugarren sektoreko kategorien nagusitasun gorakor argia (enplegatuak, ararteko lanbideak, koadroak eta goi-mailako lanbide intelektualak, ofizialeak, merkatariak, enpresa-buruak) erakusten du, baita laborari esplotatzaileen kopuruaren murrizketa handia ere.

Lapurdiko kostaldean, aise nagusitzen dira hirugarren sektoreko jarduerak. Nafarroa Beherean, laborantzaren garrantzi berezia aipa daiteke, eta Zuberoan, laborantzaz gain, industriaren presentzia agerrarazten duen langileen kategoriaren proportzio handia.



2. Jarduera nagusien ezaugarriak

a) Laborantzaren erresistentzia

Mendebaldeko herrietan **XX. mendea laborarien eta etxaldeek kopuruaren murrizketaren mendea izan da**. Ipar Euskal Herrian ere, fenomeno hori argi ikusi da. Horrela, 1955tik 2000ra bitartean etxaldeek erdia desagertu da. Azken hamarkada honetan kopurua %15,8ko neurrian apaldu da. Gaur egun 5.939 etxalde dira Ipar Euskal Herrian.

Beharakada hori azkarra izan bada ere, hurbileko eskualdea den Biarnok oraindik emaitza larriagoak izan ditu (-%26,5); gauza bera Akitania Eskualdeko emaitzen aldetik (-%27,6). Beraz, euskal laborantzak hobeki ihardokitzen du, nagusiki **segiden hartzeak hobeki segurtatuak** direlako. 1988an 55 urte baino gehiagoko laborarien %41ek zioten segitzaile bat bazutela, proportzio hori %27koa zelarik Frantziako Estatuan.

Segida-hartze horiek azal daitezke tradizionalki euskaldunek familiaren ondareari dioten atxikimenduarekin: haurridetarik batek etxaldearen segida hartu behar du, familiako baserria eta bere lurak baturik atxikitze-ko. Hala ere, zabaltzen ari diren hiriko bizimoduek, ohitura horien aldaketa dakarte, hainbaten etxaldeek etorkizuna zalantzan ezarriz. Alabaina, lurren zatiketek etxaldeek eremuen murrizketa eragin lezakete, ez gehiago bizikorrak bihurtuz.

Segida horien hartzea azal daiteke, halaber, eskualde horietako bertze jarduera ekonomikoaren eskasiagatik. Laborantza, beraz, ezinbertzeko hautua bilakatzen da "herrian" gelditu nahi dutenentzat.

Etxaldeen kopuru handiena Lapurdi barnealdean eta Nafarroa Beherean dago. Lapurdi Barnealdearen kasuan, laborantzak arazo nagusi bat ezagutzen ari da kostaldetik hedatzen ari den hiria. Lur-presioa gero eta handiagoa da, eta tentazioa da lehen laborantzarako baliatzen ziren lurak eraikitor bihurtzea, ondoren garestiago saltzeko.

Lapurdi barnealdean pluriaktibitate handiagoa dago Zuberora eta Nafarroa Beherean baino. Gazteen proportzioa handitu egin da 1979az geroztik, baina erretretaren adinaren apaltzeak eta aitzin-erretretarako harturiko neurriek azaltzen dute fenomeno hori, hein handi batez.

Nafarroa Behereak gazteen proportzio handiena biltzen du (%27). Lapurdiko kostaldean, aldiz, etorkizuna aski iluna da: laborarien %55ek 55 urte baino gehiago ditu, eta gazteen proportzioa %10era mugatzen da.

Laborarien heziketa-maila gora doa: 1970 eta 1988. urteen bitartean, gutxienez bigarren mailako formazioa duten laborarien kopurua sei aldiz biderkatu da.

Laborarien inplikazio azkarra sindikatuetan (FDSEA eta ELB) ere aipa daiteke. Azken hauteskundeetan berezko Lanborantza-Ganbara baten aldeko kanpaina aktiboa egin duen ELB sindikatuak Ipar Euskal Herriko gehiengoa lortu du, departamenduan minorian izanik ere. FDSEA sindikatuak nagusi izaten segitzen du Paueko erakundeetan.

Oro har, Ipar Euskal Herriko etxaldeak txikiak dira: 23 hektarea batez bertze. Hau azal daiteke Ipar Euskal Herriak duen kokapen geografikoagatik. Alabaina, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko iparraldean zelaia badaude ere, laborantza mendialdean kokatzen da nagusiki. Txikiak izanik ere, etxaldeetako lur-eremua handituz joan da, bikoiztuz 1970etik hona.

Ipar Euskal Herriko laborantza ardi hazkuntzari bideratua zaio nagusiki.

Ardien kopurua gora doa. 1970 eta 1988. urteen bitartean %70ko neurrian emendatu da, arazoak pausatuz etxaldeen eremu txikiegiak behartzen dituen lur komun baliapena kudeatzeko.

Bidaxune eta Donapaleu aldeko jarduera nagusia, lehia gorakorra jasaten duen hazi-artoaren inguruan da.

Oro har, Ipar Euskal Herriko laborantzak diru-laguntzen behar gero eta handiagoa du. Mendi-indemniazioa errenta osagarri arras garrantzitsua bilakatu da etxalde frankoren biziraupenerako. 2000. urtean departamenduan egindako inkestak diru-laguntzen partekatze desorekatua erakusten du Biarnoko eta Ipar Euskal Herriko eskualdeen artean. Etorkizunari begira eta konklusio gisa, hona hemen 1993an Euskal Herria 2010 prozesuaren kariaz egindako txostenaren pasarteak.

Datorren urteetan ardi esnedunen nagusitasuna azkartuz joanen da ondoko arrazoiengatik:

- mendi-eskualde batean kokatuak baikara,
- etxaldeen handitasun txikia baitute,
- artoaren prezioa behera baitoa,
- hazkuntzako primek konpentsazio handiagoa ematen baitute,
- esne-kuotarik ez baita ardi esnearen kasuan,
- laborantza-politika komunak nagusiki abelgorriak eta zituak kolpatzen baititu,
- bazka-produkzioak garrantzitsuak baitira (baliaturiko eremuaren %75).

Ardi-esnea arriskuan baldin bada, Ipar Euskal Herriko laborantza da lanjeran. Beti bezala, lehia mehatxu garrantzitsuenetariko bat da. Ekoizpenaren baloraziorako erabiltzen den gazten lortzeko transformazioak kalitatearen axola eta jatorria erakusten dituen promozio-politika eduki behar du.

Axola hori ezinbertzekoa da, halaber, gizenaren edota akuakulturaren arloetan. Arloaren produkzioaren emendioak segitu behar luke (Irulegi Jatorri Kontrolatu Izendapena, AOC), merkatua ez baita agortua, ezta urrundik ere. Bertzalde, Baionako Xingarrak lortu duen Jatorri Babestuaren Izendapenak (IOP) zerri arloaren garapena ekar lezake.

b) Arrantzaren galera

Hiru portu daude Ipar Euskal Herrian: Donibane Lohizune-Ziburukoa, Hendaiakoa eta Baionakoa. Bertzalde, Dakar, Landetako Capbreton eta batez ere Baionako eskualdeari "frantses-espainolak" deitzen zaien itsasontziak. Guztira ari diren 675 arrantzaleetarik %50 baino gehiago Ipar Euskal Herritik kanpo bizi dira.

Puntu baikorrak

1999an, arrantzale-mota berriak eta arrantza-tekniken aniztasunak Donibane-Ziburuko portua biziarazi dute. Azpiegiturak onak dira: enkantea, kaia, tresneria... Lekuko formakuntza kalitatezkoa da eta gazteek bizi-kalitatearen hein minimoa segurtatuko lukeen arrantza "iraunkorrea" abiatzeko gogoia dute.

Bertzalde, beherakada izugarri baten ondotik (-%40, 1993tik 1996ra bitartean) arrainaren batez bertzeko salmenta-prezioa gora doa (+%92 1996az geroztik), nahiz oraindik apala den.

Puntu ezkorrak

60ko hamarkadako 1.200 arrantzaleetarik 300 baizik ez dira gelditzen gaur egun.

Itsasontzi-parkea zahartzen ari da. Azken 6 urte hauetan 2 itsasontzi berri bakarrik eraiki dira. Arrantzaleak berak ere zahartzen ari dira.

Hendaiako enkantea desagertu egin da. Hori azken urte hauetan izandako emaitza beherakorrengatik azal daiteke, kantitateetan zein balioetan ere.

1993tik arrantzaturiko kantitatea %29ko neurrian gutxitu da. Donibane Lohizuneko portuak arrain-kantitate handiena jasotzen du: Hendaiakoak baino bi aldiz gehiago.

Arrantzaren diru-iturri ziurrak diren kontserbategiak ere osoki desagertu dira. Donibaneko enkantearen salmenten balioak izugarrizko beherakada jasan du (erdia baino gehiago 10 urtez).

Lehengaiak desagertze-arrisku larriak da, deus axola duen arrantzarengatik (arrain txikiak biltzen baitira berdin-berdin), sare-kopuru handiegiagatik eta kutsadurarengatik, bertzeak bertze.

Koherentzia eskasa nabari da erabakiak hartzen dituzten egituren artean (Kontseilu Orokorra, Industria- eta Merkataritza-Ganbara, Estatu Frantsesa, Europa). Arazo bera sumatzen da arrantzaleen artean.

Kontzentrazioa handia da: 8 itsasontzik (50 arrantzalek) boterearen %60 dute.

Gazteek ez dute aparteko laguntzarik instalatzeko mementoan. Lankidetzak txikitzen ari da.

Frantziako estatuko portu frankorentzat bezala, balantza idorra da; arrantza hiltzorian da. Arrantzale anitz ez dira gehiago arrantzaz bizitzera heltzen. Ipar Euskal Herriko egoera orokorki bertze portuena baino txarragoa da.

Egoera orokorra

Euskal Herriko arrantza-eremuak arras txikiak dira eta lehengaiak pobretu egin da.


Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean elkarren arteko harremanak biziak izateko orde, ofizio desberdinen gatazkak nagusitzen dira.

Bertalde, Euskal Herria ez da Europako Batasunak laguntzen dituen eskualdeetatik sartu izaniz Gasteizko gobernuak Hego-Euskal Herriko arrantza hein handian laguntzen badu ere, ipar Euskal Herriak ez du inolako berezko instituziorik laguntza finantzarioak jasotzeko. Munduan zehar sektore agroalimentarioa, inamurkoko merkatuaren (OMC), teknologiararen aitzinamendua eta errentabilitatearen menderagoa da. Halaber, herri aberatsetan ingurumena eta lehengaiari buruzko errespetu handitzen ari da, eta proteintea naturala gisa bai ezatua den arrainaren balioa munitiboak perspektiba berri bakoitzuk ezar litezake.

c) Azpi-industrializazioa eta eraikitza-sektorearen garrantziazia


c1. Industria

Industriaren garrantzia herrialdeka, 2001 (%) (%)




Grafiko honek argiki erakusten du industriaren pisua hula ipar Euskal Herrian. Eraikitza ondarearen garrantziak dira kopuru hauen eraikitzairen parte kentzen badiegu.

Honekin, 1999an industriak IEHko enpleguen %14,3 biltzen ditu, %30 inguru Hego-Euskal Herrian da 975etik enplegu orokorra %22,7ko heineanigo bada, industriako enplegua %9,610 ahonumiztuta. Apatzelta bierdiena azken hamarkada konetan gertatu da, 15000 enpleguetatik 10000 galduta baita eta 2003ko amaizaitzailak harhar-tuz 200 enplegu galduta dira, ohizko industrietan nagusiki (Chupa Chups, ARCC, Comar, SAFAM).



Industri enplegu banaketa, lurraldeka,
1999-an



Iturria RP, 1999

Ipar Euskal Herriko industria kanpoaren menpe dago.

Ipar Euskal Herriko lehenengo 19 enpresetarik 13k beren egoitza soziala Euskal Herriatik kanpo dute, eta nazioarteko dimentsioa duten talde handien eskuetan daude. Industria elektriko eta elektronikoa bultzatu duten industriek ongi erakusten dute egoera hori: Sony (2000. urtean RUWEL nazioarteko taldeak eresia eta berregituratze-erabaki baten ondotik itxi dena), SAT, Telerad. 1990an "kanpoko" sozietate horiek bertako industriako langileen %32 biltzen zuten, eta azpitratamendurako enpresa andanetan jarduera bultzatzen zuten (240 enpresa eta 3.400 enplegu).

2001., 2002. eta 2003. urteak guztiz ilunak izan dira Ipar Euskal Herriko industriarentzat. Honela, Mauleko Etchandy espartin egilearen, RUWEL, SAFAM, Orma enpresen ixteak aipa daitezke bai eta industria frangotant iragan den langile kopuruaren murrizketa. Hiru urte haietan 600 enplegu inguru desagertu dira. Enpresa horietako enpleguak jokoan izateaz gain azpikontratatazailen andanetan biziraupena kolokan ezarri da.


c2. Eraikuntza

Enplegua behera badoa ere (-%20), eraikuntza-sektoreak toki garrantzitsua du Ipar EHan. 1999an, 6.608 enplegu ditu, hots, enpleguen %6,6 (laborantza, arrantza eta oihangintza bezainbat). Hala ere, proportzio hori behera doa, 1975ean enpleguen %10 baino gehiago biltzen baitzuen.


d) Hirugarren sektoreko nagusitasuna

Ipar Euskal Herrian, bertze eskualdeetan bezala, hirugarren sektoreak toki gorakorra du ekonomian. Alabaina, 25 urte hauetan enplegu orokorra %22,7ko heinean emendatu da eta 3. sektorearena %63,3koan.

Zerbitzuen garrantzia herrialdeka, 2001 (%)




Parte erlatiboak sektore honek duen garrantzia ongi erakusten du; hain zuzen, enpleguaren %72,6 biltzen du Ipar EHn (71667 enplegu), %59 EAEn eta %53 Nafarroa Garaian.



Iturria RP, 1999

Sektore horretako enpleguaren gorakada, bereziki gizabanakoei hornitzen zaien merkataritza-zerbitzuetan eta, hein apalago batean, xehekako merkataritzako adarretan ikusten da. Ipar Euskal Herriaren berezitasun turistikoak eta adineko biztanleriaren (partikularrei hornituriko merkataritza-zerbitzuen kontsumoa) presentziak zeregin nabarmena izan dute gorakada horretan.

3. sektoreko adarren banaketa 1999-an



Heziketa, osasuna eta ekintza sozialak deritzon adarrak enplegu handiena biltzen du. Lehenago erran dugun bezala, adineko biztanleriak zeregin garrantzitsua du horretan, baina bertze bi berezitasun ere aipa daitezke:

- Bata, Kanboaldeko mikro-klimak eragin dituen hainbat osasun-erakuntza-ren plantatzea. Mende honen hastapenean gunehori biriketako minen (tuberkulosia) sendatzeko berezitua bazen ere, gaur egun erakuntza horiek bertze jardueretan birkonbertitu dira (zahar-etxe, sanatorium...).

- Biga, Hendaia, Angeluraino, kostako osoan thalaso-terapiaren inguruan azken urte hauetan irekitako zentroen biderkatzea.

Horretarako 1975-1990 garaierako Euskal Herria 2010 txostenean sektore honetaz egin den analisia.

Enpresarentzako zerbitzuen hazkundeak etorkizun baikorra erakusten du 15 urtez hirugarren sektoreak ia 17.000 enplegu sortu ditu. Hirugarren sektoreko adar guzietan enpleguak sortu dituzte.

Enpresentzako merkataritza-zerbitzuek hazkunde handiena lortu dute: +%117koa 15 urtetan. Guztira, 5.000 lanpostu dihardute honelako lanetan:

- Errekuperaketa, aholkularitza-asistentzia-ikerketa.
- Finantza- eta aseguratza-laguntza.
- Higiezin, alokatze eta kreditu-bail higikorak.
- Irakaskuntza- eta ikerketa-arloetan.

Bereziki Baionan heinean goratu den enpresentzako zerbitzu-enpresen gorakada handia izan da. Sektoreko osagai estrategikoenak diren ikerkuntza-, aholkularitza- eta antolaketa-jardueren kasua oraindik adierazgarriagoa da (+%27 Baionan).

Hazkunde hori intentsiboa izan bada ere, enpresentzako zerbitzu komertzialen garrantzia apala da IEHan. Kategoria sozio-profesionalen bilakaerak, lanpostu kalifikatuagoa eskatzen duen enpresentzako zerbitzu komertzialen garapena baieztatzen du. Alabaina, 1982 eta 1990. urteen bitartean, koadro eta goi-mailako lanpostu intelektualen kopurua %46ko heinean emendatu da. Kategoria honen baitan, unibertsitateko irakasleak eta lanpostu zientifikoak hazkunde azkarrena izan dute (+%77), enpresentzako koadro teknikoak hurbil izanik (+%69). Proporzioz, koadro gutxiago daude Frantziako Estatuan baino, baina bi bilakaera horiek IEHan gertatzen ari den jazarpen tekno-logikoaren seinale dira, ilustrazio hobereana industria informatikoaren eta ingeniari-tzaren garapena delarik. Honela, goi-mailako formakuntzarako eta teknologiaren transferentziarako formakuntza-zentroen sortzea (IDLS-ESTIA bilakatu dena geroztik) aipa daiteke.

Hirugarren sektorean enplegu gehien sortu duten gaineratiko adarrak ondo-koak dira:

- Aseguratza.
 - Pertsonentzako zerbitzuak (konponketa —autogintza kenduz—, osasuna, ekintza soziala, animazio-zerbitzuak, kultur eta kirol zerbitzuak, eta bertze-lako zerbitzuak, hala nola tindategia, ileapaindegia, estetika, argazkilaritza, garbiketa...).
 - Alokairua eta "kreditu-bail" higiezina.
 - Xehetako merkataritza (elikagaiak).
- Xehetako merkataritza (elikagaiak kanpo) enpleguari dagokionez egonkorra izan den bakarra da.

Turismoa Ipar Euskal Herriko ekonomiaren tertziarizazioaren faktore garrantzitsua da.

15 urtez, jatetxe-edantegi-hoteletako enpleguak %40ko heinean emendatu dira, eta 1990an enpleguaren %5 biltzen zuten (4.400 enplegu). Kanboko osasun turismoko 800 enpleguak, thalaso-terapiako 550 enpleguak eta turismoak eragiten dituen enpleguen gain-kopuruak gehitzen baldin baditugu, turismoak biztanle aktiboen %10 inguru biltzen ditu (9.000 langile). Kostaldeko thalaso-terapiako bost zentroek, arrantzaren negozio-zifra bera eragiten dute.

Oro har, turismoak jardueraren %15 ordezkaten du. Harrerarako ahalmen garrantzitsuak. Ipar Euskal Herriak Akitaniako biz-tanleriaren %9 ordezkaten du, baina hotelgintzaren ahalmenen %20, kanpalekuen %13, eta etxebezitza sekundarioen %15. Gisa berean, Pirinio Atlantikoko biztanle-riaren %43 ordezkaten du, baina hotelgintzaren %68, kanpalekuen %82 eta etxe-bizitza sekundarioen %68. Azken urte hauetako hama-bi hotel-kateren plantatzeak agerian ezarri du lehiari aurre egiteko gaizki posizionatua den familia erako ohiko hotelgintzaren biziraupenaren arazoa. Gain-kapazitatearen arazoa pausatzen da, Frantziako estatu osoan inon ez bezala, 30 kilometroetan kontzentratuak diren 5 thalaso-terapia zentroengatik. Bigarren etxebizitzaren kopurua %30 emendatu da azken 8 urtetan. Biarritz eta Hendaiako kantonamenduek etxebizitzaren %30 ordezkaten dute, eta ia %40, Donibane Lohizuneko kantonamenduak. Bigarren etxebizitzek Ipar Euskal Herriko ohe turistikoaren ia erdia biltzen dute, eskualdean egin daitekeen turismoa politikatik at ezarriz. Eraikiko diren aterbetze turistikoaren kontrolaren garrantzia agerian ezarria da, eragin gorakorra baitute dagoen lur-presio izugarriarengan.

Sasoia zabaltzeko indarrak. Aterbeen hazkundearen kontrolik ezak gaur egun dauden egiturak zailtasunetan ezartzen ahal ditu, hotelgintzan bezala. Ekai-netik irailera —uztail eta agorril hilabeteetan bereziki— kontzentratzen den eta saturazio-arazoak pausatzen dituen sasoiko turismoa izaten da. Horrek agerian ezartzen du, azpiegituren handitzea baino, urtean zehar hedatuko litzatekeen eta enplegua egonkortuko lukeen turismoaren hedapenaren beharra. Alde horretara egindako indarrak azpimarratzekoak dira: Hego EHko jendeak Zuberoa gaineko aterbeak baliatzen ditu neguan, azpiegiturez hornitua den Biarritzeko hiriak negozio eta festibalen turismoa lortzen du, eta duela 15 urte birbultzaturiko Kanboko termalek urtean 11 hilabeteko jar-duera segurtatzen dute.

NOTAK

2. [populazio aktiboa (>14 urte)/populazio osoa (>14 urte)] \times 100
3. Hauek dira enpresak zuzenean denbora labur baterako egiten dituen lan-kontratuak.
4. Bost urteko lan-kontratu segurtatzen duen "Gazte-enplegua".
5. Le Pays Basque en perspective, Club de prospective Pays Basque 2010.
6. 2000ko emaitzak falta zaizkigu joerak segitu duen jakiteko.

ENPLEGUA HEGO EUSKAL HERRIAN AZKEN HIRU HAMARKADATAN

1977 eta 1994 urteen artean gure Herriak Industria Birmoldaketa prozesu sakona bizi izan zuen eta 80. hamarkadan garatu zen sektore berregituraketaren faserik gogorra. Birmoldaketa prozesu honek industriako enpleguaren galera eta langabeziaren hazkunde garrantzitsua bultzatu zituen, Europa guztian parekorik ez zuen langabezia tasa sortuz.

Garai honetan eta krisialdi ekonomikoaren ondorioz, aldaketa demografiko handiak eman ziren. Hauen artean, jaiotze tasaren jaitsiera eta joera migratorioen aldaketa, zeinak 50 eta 60. hamarkadatan izugarritzko etorkin kopurua ekarri zuen.

1959ko Egonkortasun Planak hazkunde handiko garaiari eman zion bide Estatu espainolean, 1977 arte iraun zuelarik (nazioarteko ekonomia krisialdi sakonean murgilduta zegoen jada). Eredu ekonomikoak ordurarte ezaugarri hauek zituen:

- Espainiako barne merkatua babesteak ondorio ezkorrak izan zituen ikerketa teknologikoak eta helburu produktiboekin berrikuntzak bultzatzeko garaian.
- Estatuak buruturiko plangintza ekonomikoak Espainiako merkatu osoa asetzeko zenbait sektore eta erregiotan inbertsioak bultzatu zituen.
- Landetatik zetorren esku lan merke asko.
- Interes tasa baxuek, enpresetan kanpo finantzaketa estimulatu zuten, egitura finantzario oso zordunak sortuz.

Gure Herriari inposaturiko eredu ekonomikoa Estatuan zegoenak baldintzatzen zuen, baita gure ekoizpen egiturak zuen erregio izaerak ere. Gure ekonomia zuzentzeko ahalmen politiko eza eta Estatu Espainiarraren interesen ondorioz, sektore batzuetan oso espezializaturik zegoen ekoizpen ehuna garatu zen. Aitzitik, 60. hamarkadan izandako industria garapen ikaragarria izan zen euskal hazkunde ekonomikoaren oinarria, oinarritzko industriaren sektoretan metatu zena (industria metalikoak eta bere osagarriak, untziolak...)

Altzairua soilik lantzearen ondorioz ekoizpenean sortzen den desorekari, Bilbo Handian, Ibaizabaleko behe arroan, Donostialdean eta Debarroan finkatzen den industrian ematen den gehiegizko fokalizazio geografikoa gehitu behar zaio. Araban eta Nafarroan aldiz, industrializazioaren hazkunde prozesua beranduago izan zen eta modu orekatu batean.

Inguruko herrialdeek, beraien industria ziklo berrira berregokitzen zuten bitartean (beraien ekonomi traktoretan Euskal Herriari aurre hartuz), hemen, siderometalurgia eta untzigintzaren ekoizpen gaitasuna handitu zen.

Azkenean 1975ean iritsi zen krisialdiaren aurrean gure ekonomiaren ahultasuna gehiegizko espezializazioak erakarrizko arrisku handien ondorioa izan zen. Gainera, euskal ekonomikaren hazkunde eredu krisialditan uzkurgarrien diren sektore helduetan oinarritu zen, energi kontsumo oso handia beraien ezaugarrietako bat izanik. Zentzu honetan, gogoratu beharra dago 1973an petrolioaren salneurriaren gorakada izugarria eman zela.

Krisialdi sakona eta birmoldaketa basatia eragin zuten arrazoien artean, azpimarratzekoak dira euskal industriaren egiturazko mugak (azpiegitura, teknologia eta giza baliabide kualifikatuen gabezia) eta zetorren krisialdiari aurrea hartzeko ikuspegi falta.

Krisia larria izan bazen ere, 1983 arte ez zen erreakzionatu, ekoizpen baliabideak beste sektore dinamikoagoetara birbanatuz ekoizpen ehuna birmoldatzea helburu zuen industri politika bultzatu zen arte, hain zuzen ere. Urte horretan, 1983an, Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko Lege Dekretua onartu zen eta Sustapen eta Enplegu Fondoen bitartez, ohizko sektoreetako (siderometalurgia, untzigintza eta lerro zuriko elektrogailuak) enpresa handiak birkapitalizatu eta saneatzeko baliabide finantzario kopuru handia sartu zen. Hala ere, PSOEn gobernua garatu zituen birmoldaketa industrialerako hasierako plan hauek erabateko porrota izan zuten, dirua, batez ere, oso zorpeturik zeuden enpresetako estruktura finantzarioa (zorrak) garbitzera eta suntsitu ziren milaka lanpostuen kalte-ordainak ordaintzera bideratu zelako. Aitzitik, euskal industria egiturak eskariaren teknologia eta ekoizpen behar berriei erantzuteko derrigorrezko zituen aktibo industrialen birmoldaketara ez zen bitartekorik bideratu.

1977-1985, fase atzerakorra.

1977an hasi eta zortzi urtetan zehar enplegu murrizketak eman ziren Hego Euskal Herri osoan. Ziklo atzerakor honetan 156.000 lanpostu galdu ziren; hau da, 1977an zeuden lanpostuen %17. Suntsitu zen enpleguaren %78 gizonezkoena zen eta %22 emakumezkoena.

EPA Inkesta	GIZONAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	Landunak	Diferentzia	Landunak	Diferentzia	Landunak	Diferentzia
URTEA						
1977	682.093		238.408		920.501	
1978	665.828	-16.265	233.220	-5.188	899.048	-21.453
1979	643.823	-22.005	238.443	5.223	882.265	-16.783
1980	623.068	-20.755	229.838	-8.605	852.905	-29.360
1981	602.903	-20.165	222.550	-7.287	825.453	-27.453
1982	583.818	-19.085	217.728	-4.823	801.545	-23.908
1983	580.255	-3.563	212.910	-4.818	793.165	-8.380
1984	562.715	-17.540	214.435	1.525	777.150	-16.015
1985	560.093	-2.623	203.793	-10.643	763.885	-13.265
1977-1985		-122.000		-34.615		156.615

¹ EPA inkestaren arabera (EPA - metodología zaharra).

Azpirarragarria da garai hartan (1977-85) emakumezkoen aktibitate tasak ez zuela %29 gainditzen; gizonezkoena, aldiz, %74,5 ingurukoa zen. Emakumeak tradizionalki familiaren ugalketarekin zerikusia zuten zereginetara (etxeko lanak, zahar eta umeen zainketa, ...) alboraturik egotearen ondorioz, lan merkatuan sartzen hasi berriak ziren.

Galdu ziren enplegu guztien %80 **industriakoak** izan ziren (125.000), 1976 urtearekin alderatuz enplegua %31 jaitsiz; emakumezkoen enplegu industrialak izan zen jipoituena, gizonezkoena %29,6 jaitsi zen bitartean emakumeen galera %40ekoa izan baitzen. Hau horrela izan zen sektorean emakumeen presentzia oso murriztua izan arren; 1977an, industrian lanean ari ziren emakumeak %14,4 ziren, eta 1985an, aldiz, %12,5 besterik ez.

Industriak enpleguari dagokionez ekonomian zuen pisua txikitu egin zen, 1977an %43,7 izatetik 1985ean %36 izatera; baina inolako zalantzarik gabe, Bizkaia izan zen ondorioak bortizkien jasan zituen herrialdea.

Gainontzeko sektoreei dagokienez, azpirarratzekoa da **eraikuntza** ere enpleguak %31,4 behera egin zuela epealdi honetan; 24.200 lanpostu galdu ziren. Sektore honetako enpleguaren ezaugarrietako bat emakumeen presentzia erabat marjinala zen eta aztertutako urteetan ez zen %3ra iristen.

Nekazaritza eta **arrantza** sektoreetan enpleguaren galera %28,2koa izan zen, 24.400 lanpostu desagertu ziren, horietako erdiak baino zerbait gehiago (%52,4) emakumeenak izanik. Gainontzeko ekonomia garatuetan bezalaxe, lehenengo sektorearen beherazko joera hau gaur egun arte mantendu da, nahiz eta intentsitate maila desberdinak bizi izan dituen garaiaren arabera.

Zerbitzuena izan zen enpleguan bilakaera positiboa eduki zuen sektore bakarra. Krisialdi ekonomikoa egon arren 17.000 enplegu sortu ziren, %4,8ko hazkundera suposatuz. Ekonomiaren etengabeko tertziarizazioak eta zerbitzu publikoak eskaintzerakoan (osasuna, hezkuntza, ...) zeuden gabezi handien ondorioz administrazio publikoak jasan zuen garapenak eragina izan zuten bilakaera honetan. Halaber, Espainiar Estatuak martxan jarritako Autonomien Estatuaren ereduak eragin zuen deszentralizazio administratiboak ere zerikusia izan zuten.

Egun alderantziz bada ere, garai hartan sektore honetan sortutako enplegu gehiena (%91,4) gizonezkoen zuzendutakoa zen. Dena dela, sektore honetan emakumeen presentzia ere nahiko esanguratsua zen, %44 ingurukoa.

Guzti honen ondorioz, 1977 eta 1985 urteen artean, zerbitzu sektoreko enpleguaren pisua 10 puntu igo zen, enplegu guztiaren %48,6 izatera iritsiz eta enplegu industrialak gaindituz (1981etik aurrera hain zuzen ere).

86-91, hazkunde garaiak.

Enpleguaren hazkunde fase berria 1986an hasi zen, Europako Ekonomia Erkidegoan sartzearekin batera, eta 1991 arte luzatu zen, hau da, 1992-93ko biurtean izan zen krisialdi ekonomikoak enpleguan negatiboki eragin zuen arte.

86tik 91ra arte iraun zuen hazkunde fase honetan 128.500 enplegu neto sortu ziren, 892.400 pertsona landunetara iritsiz. Nahiz eta enplegua %16,8 hazi zen, antzinako krisialdiaren aurretik zegoen enplegu maila (920.500 landun 77an) ez zen berreskuratu.

Sortutako lanpostuen %56,3 emakumeek bete zituzten, kolektibo honen okupazio maila %35,5 igo zelarik hazkunde garai honetan. Gizonezko landunen hazkundea motelagoa izan zen, %10 ingurukoa, baina kontutan izan behar da emakumeak oso enplegu maila baxutik abiatu zirela.

Emakumezkoen iharduera tasa 1985ean %29 izatetik 1991n %35 izatera pasa zen eta datu honek ere baieztatzen du emakumeek lan merkatuan zuten parte hartzea etengabe handitzen ari zela. Hala ere, emakumezkoen iharduera tasak gizonezkoena baino askoz ere txikiagoa izaten jarraitzen zuen (%66koa 1991n).

Nekazaritza eta **arrantza** sektoreetan izan ezik (enplegua erdira jaitsi zen) gainontzeko sektoretan lanpostu kopurua handitu egin zen. Hala ere, **zerbitzuetan** izan zen hazkunde nagusia.

Ekonomiaren hazkunde ziklo honetan sortutako enplegu netoaren %90 **zerbitzu** sektorekoa izan zen, 115.600 lanpostu neto inguru sortuz sektore honetan. Enplegu hauen %59,7 emakumeak kontratatuzera zuzendu zen eta gainerantzeko %40,3 gizonezkoak kontratatuzera.

Zerbitzu sektoreko lanpostu berrien sexuaren araberako banaketak nahiko orekatua badirudi ere, aipatu beharra dago emakumeen sarrera gizonezkoen bikoitza izan zela. Horren ondorioz, emakume landunen kopurua %43,9 hazi zen, gizonezkoena, aldiz, %21,9.

Eraikuntzan ere enpleguaren hazkunde esanguratsua gertatu zen. 16.500 lanpostu neto sortu ziren, hau da, sei urtetan %31,3ko hazkundea (zerbitzuen baino bi hamarren handiagoa) jasan zuen. Gizonezkoentzat izan zen enplegu hauen %94,6.

Industrian zikloaren hazkunde efektua motelagoa izan zen eta enplegua %8,8 hazi zen. 24.400 lanpostu berri sortu ziren eta haueetatik %29,4 izan ziren emakumeentzat.

Laburbilduz, azpimarra daiteke hazkunde ekonomikoa bizi izan zuen epe honetako ezaugarri nagusienak zerbitzu iharduereen zabaltze izugarria eta hauekin erlazionaturiko enpleguaren sorrera izan zirela. **Zerbitzu** sektorearen dinamismo hori industrializazioan oinarrituriko garapen ekonomikoko eredu gaitu duten ekonomia post-industrialetan ohikoa izaten da.

92-93, bi urteko krisi sakona.

Euskal industri ehunean tradizionalki pisu espezifiko oso handia izan zuten sektore batzuen (siderometalurgia eta untzigintza) berrantolatzea oraindik zintzilik zegoen testuinguruan, aztertutako hedapen fase honen bukaerak, atzeraldi ziklo berri bati bidea eman zion. Berrantolatze behar honi, gure ekonomian oinarritzekoak ziren sektore hauen ekoizpen gaitasuna murrizteko Europako Ekonomia Erkidegoak egindako exijentzia gehitu behar diogu.

Estatu Espainolari egotzitako kuotak zorrotzak izateaz gain, gobernu zentrala izan zen (PSOeren eskutan garai hartan) egokitzapenaren zama handiena Hego Euskal Herrian kokatua zegoen enpresa publikoen sareko ekoizpen zentroek jasan behar zutela erabaki zuena.

Erabaki hau, euskal siderurgia eta ontziolentzat ez ezik, enpresa osagarri kopuru handi batentzat ere, aurrekaririk gabeko zigor politikoa izan zen.

Industriaren desegite prozesu honen ondorioz, sektore honetan, 42.875 lanpostu suntsitu ziren bi urte eskasetan. Industriako enplegua deusezteak gizonezkoengan eragin handiagoa izan zuen termino absolutuetan, kaleratutako 36.100 gizonezko langileek industrian galdutako enpleguaren %84,2 suposatzen baitzuten.

Hala ere, erlatiboki, emakumeak izan ziren kaltetuenak, krisiaren aurretik (1991) industrian lanean zebiltzan emakumeen %16,1ak galdu baitzuen bere lanpostua; gizonezkoen kasuan, %13,9ak galdu zuen.

Industrian enpleguak jasan zuen bilakaerak emakumeak sektore honetan zuen presentzia murriztu zuen, industria ihardueraren adar desberdinetan lehendik zuen presentzia txikia murriztuz.

Baina krisialdiak ez zuen Industria soilik ukitu. **Eraikuntzan** eta **Nekazaritza** eta **Arrantza** sektoreetan enplegu mailaren aldaketak txikiak izan ziren; **Zerbitzu** sektorean, aldiz, biztanlego landuna %3 gutxitu zen, gure ekonomian guztira deuseztu zen enpleguaren %25,4 suposatuz.

Krisialdi motz baina sakon honetan 14.000 lanpostu neto inguru galdu ziren Zerbitzu sektorean. Baina aurreko atzeraldian ez bezala, sektore honetako gizonezko landunen kopurua 18.000 pertsonatan gutxitu zen, emakumeak 4.000 gehiago ziren bitartean.

Bilakaera hau geroz eta arruntagoak eta hautemateko errazagoak diren 2 arrazoiren ondorioa da:

- Beherakada jasan zuten iharduera industrialetako zerbitzu asko azpikontratatu egin ziren eta krisi garaian mota honetako enplegu asko deuseztu zen. Iharduera industrial asko zerbitzu bilakatzearen abiapuntua lehen enpresa unitate berdinean barneraturik zeuden lanak (mantenua, garraioa, zaintza, garbiketa, ...) esternalizatzea eta azpikontratatzea da.
- Lan munduan emakumearen presentzia etengabe handitu eta Zerbitzu sektorearen feminizazioa gertatu zen. Horretan zerikusi handia izan zuen kualifikazio baxuko eta izaera prekarioko (hosteleritza, zerbitzu pertsonalak, txikizkako merkataritza) enpleguek indar handiagoa izateak eta zerbitzu publikoetako enplegua (administrazioko iharduerak, osasungintza, hezkuntza) mantentzeak, hauetan emakumearen presentzia handiagoa baita.

1994ean hasitako hazkunde zikloa.

1992-93ko krisialdia eta gero hasitako susperraldi ekonomikoak dagoeneko 10 urteko iraupena duen hazkunde ziklo berri bat ireki zuen. Jarraian emandako hazkunde ekonomikoko epe hau gure herrian sekula eza-gutu den luzeenetako bat da inolako zalantzarik gabe. Hala ere, enplegu sorrera garrantzitsua izan den arren, aldizkakoa eta prekarioa den enplegua gutxitzeko arazoak daude oraindik.

Metodologia² berriarekin egindako EPA inkestaren arabera, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiak osaturiko lurraldeetan 270.000 lanpostu inguru sortu dira azken hamar urte hauetan. Gainera, azpimarratu beharra dago emakumeentzat izan direla sortutako enplegu gehienak, %64,3 hain zuzen ere.

Sortutako enplegu kopuruaren ondorioz biztanlego landunak %30,8ko hazkundea izan du 1993ko datuekin alderatuz gero; baina sexuaren arabera desberdintasunak garrantzitsuak dira, emakume landun kopurua %60,6 hazi den bitartean gizonezkoak %16,3 hazi baitira.

EPA Inkesta	GIZONAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	Landunak	Diferentzia	Landunak	Diferentzia	Landunak	Diferentzia
1994	577.900	-11.600	295.850	8.825	873.725	-2.800
1995	585.800	7.900	308.400	12.550	894.250	20.525
1996	594.275	8.475	322.725	14.325	917.025	22.775
1997	609.675	15.400	344.450	21.725	954.050	37.025
1998	629.225	19.550	351.900	7.450	981.125	27.075
1999	655.350	26.125	376.375	24.475	1.031.775	50.650
2000	677.125	21.775	399.800	23.425	1.076.900	45.125
2001	684.700	7.575	425.200	25.400	1.109.900	33.000
2002	686.325	1.625	437.250	12.050	1.123.525	13.625
2003	685.850	-475	460.950	23.700	1.146.775	23.250
1994-2003		96.350		173.925		270.250

²Epe hau metodologia berriarekin aztertzen dugu datuen homogeneotasuna ziurtatzeko. 2002 urtean INE-k metodologia berrikuntza batzuk barneratu zituen EPA-n bere fidagarritasuna hobetzeko. Biztanlego serieak azken urtetan izandako migrazio korranteak kontutan hartuta aztertu ziren, eta inkestaren laginean presentzia handiegia zuten biztanle segmentu batzuen pisu espezifikoak aldatu zen.

Era berean, langabeziaren definizioa Europar Batasuneko normatibara egokitu zen eta bertan garbi zehazten da enplegua bilatzeko metodo "aktiboak" zeintzuk diren. Ordudanik ez dira langabetu kontsideratzen lana bilatzeko bide bakar moduan INEM-en inskribatzen direnak, baldin eta ez badute hartueman "aktiboren" bat mantentzen beraien bulegoarekin informatzeko edo lan eskaintzak jasotzeko (lehen inskripzioa nahikoa zen).

Dagoeneko aztertutako³ EPA-ren serie historikoak kontutan hartuz, sektore guztietan izan dira biztanlego landunaren hazkundeak lehenengo sektorean izan ezik, bertan 1993an zeuden enpleguen %23,6 galdu baita.

Hala ere, azpimarragarria da **Eraikuntza** sektorean enpleguak izan duen bilakaera itzela, azken hamarkadan %50,7 haziz; hazkunde horrek zerikusi handia izan du etxebizitzan egindako inbertsioen zabalkuntzarekin.

Fase ekonomiko honetan enpleguak izan duen indarrak eta interes tipoen beherapenek bultzatu dute neurri handi batean 1997. urtean hasitako "boom" inmobiliarioa eta baita Eraikuntza sektoreak garatu duen ihar-duera trinkoa ere. Gaur egun, sektore honetan, obra zibila (azpiegiturak) etxebizitzaren eraikuntza ordezkatzeko ari da.

Enpleguaren sorreran **Zerbitzuen** sektorea ere protagonismo handia erakusten ari da. Termino erlatiboetan lanpostuen hazkundeak Eraikuntzak izan duena baino txikiagoa izan bada ere, %38,2 eta %50,7 hurrenez hurren, balio absolutuetan Zerbitzu sektorean sortu da enplegu gehien.

Zerbitzuetako biztanlego landuna ia 190.000 pertsonatan hazi da. Ekonomia formalean sorturiko hamar enplegutik zazpi sektore honetakoak izan dira. Eta gainera, 190.000 enplegu neto hauetatik %75,5 emakumeek bete dituzte.

Emakumeak lan merkatuan sartzeko bide garrantzitsua Zerbitzuak izan dira; azken hamar urteetan biztanlego landunera batu diren 174.000 emakumeetatik %82,2ak sektore honetan aurkitu du lana.

Industrian lanpostuek bilakaera lasaiagoa izan dute eta 1993. urtean lorturikoekin (1994ean industrian 9.000 lanpostu inguru galdu ziren) alderatuz %19 igo dira.

Industrian sorturiko 51.800 lanpostuetatik %52 gizonezkoentzat izan ziren eta gainerantzeko %48 emakumezkoentzat. Hala eta guztiz ere, emakumeen presentzia industrian %66,8 hazi da eta gizonezkoena %11,5 soilik.

³ Metodologia zaharrarekin egindako EPA-ren datuen arabera, 1994ean hasitako hazkunde ekonomikoak urte horretan bertan efektu positiboa izan zuen enpleguarengan, nahiz eta ahula izan oraindik EUSTAT-ek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lan merkatuari buruz ematen duen informazioak ere efektu berdina baieztatzen du.

Taulan agertzen diren GIZONEZKO eta EMAKUMEZKOen ileren batura ez dator bat %100ean GUZTIRAKO ilararekin. Hamarrekoen gale-raren ondorioa da, jatorriko informazioa hiruhilekoka eta milaka pertsonaka emanda baitago.

NEOLIBERALISMOA ETA BERE ERAGINAK LAN INGURUNEAN


Orain arte ikuspuntu ia kuantitatibo batetik aztertu dugu enpleguak 1977tik gaur egun arte izan duen bilakera. Puntu honetan aldaketa ekonomiko, teknologiko, instituzional eta sozialek lan harreman eta enpleguaren kalitatean izan duten eragina aztertuko dugu.

Ekonomiaren terziarizazioa.

Sektore industrialak gure ekonomian paper garrantzitsua betetzen jarraitzen duen arren, uka ezina da euskal ekoizpen ehunak aldaketa esanguratsua jasan duela.

Alde batetik, lehen sektorean diharduen nekazal biztanlegoak gutxitzen jarraitu du, aldaezina dirudien joera sortuz. Beste aldetik, mikroelektronika eta informatikan izandako aurrerapenetan oinarrituriko iraultza teknologikoak, iharduera industrial tradizionalak (siderimetalurgia) eta intentsitate teknologiko baxuagokoek menperaturiko modelo ekonomikoa gainditzea ahalbidetu du.

Birmoldaketa industrial basatiak gure herrian ondorio larriak izan bazituen ere, epe luzera prozesu honek adar industrial zaharrenak teknologia eta informazio behar handiagoa duten beste iharduera batzuekin ordezkatzera suposatu du. Ekoizpenaren bilakaera honek zerbitzuen indartzean ere zerikusia izan du.



Hori horrela izanik, zerbitzu sektoreak izan duen hazkundera, neurri batean behintzat, "itxurazkoa" izan dela esan daiteke, jatorria esternalizazioan (outsourcing) baitu.

Lehen enpresa industrialean bertan barneraturik zeuden iharduera batzuk esternalizatu eta beste zerbitzu enpresa batzuei azpikontratatzeari, ekoizpen egitura arintzera eta langile kopurua murriztera zuzenduriko strategiaren barne dago.

Enpresa antolatzeke modu berri hauek ezartzearekin patronalak zera lortzen du: a) enpresek merkatuen aldaketa eta ziklo ekonomikoetara egokitzeko duten gaitasuna handitzea; b) kostu egitura murriztea; c) lan zentroetan borroka sindikalerako dagoen gaitasuna ahultzea; d) enpresen atomizazioaren bidez sindikatuen lana oztopatzea (adibidez enpresa txikietan hauteskunde sindikalak burutzea zailagoa izan ohi da).

Hala ere, era berean garbi ikus daiteke zerbitzu sektoreko beste arlo batzuetan "benetako" hazkundera gertatu dela; hala nola, zerbitzu publikoetan (osasungintza, irakaskuntza, gizarte laguntza, ...), zerbitzu pertsonaletan, aisian, turismoan, kulturean, ...

Biztanlego landuna sektoreen arabera⁴

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
1977	9,1%	43,9%	8,4%	38,6%
2003	2,4%	28,1%	9,7%	59,8%

Aztertzen ari garen epealdian, industria sektoreak, egitura dohikuntza ezberdinei, arantzelenen murrizketari eta nazio industrializatu berrien⁵ moduko ekonomia emergenteek eginiko lehiari aurre egin behar izan die.

Gaur egun industriak erronka berriak ere baditu. Alde batetik, erronka teknologikoa eta I+G-ean inbertsio gutxiegi egiteak dakarren erronka. I+G-eko gastuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako BPG-ren %1,5 suposatzen du eta %1,11 Nafarroan; EB-ean, aldiz, bataz bestekoa %1,99koa da.

Beste aldetik, Europa Erdialde eta Ekialdeko hamar nazio gehituz Europar Batasuna zabaltzeak deslokalizazio arrisku larria dakar gure industriarentzat. Lehiakide berri hauek lan kostuetan abantailak eskaintzen dituzte eta esku lan kualifikatua dute.

⁴1977. urteko datuak EPA-ren metodologia berria erabiliz gainbegiratuak daude.

⁵Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Brasil eta Mexiko.

Deslokalizazioa eta azpikontratazioa: mundu mailako merkatuan lehiatzeko enpresa estrategia.

Ekonomiaren globalizazioa aspalditik datorren fenomenoa bada ere, 80. hamarkadatik aurrera asko azkartu zen merkatuen (ondasunena zein ekoizpen faktoreena) internazionalizazio prozesua.

Komunikazio eta informazio teknologien garapenak eta merkantzien garraioa errazteak eta merketzeak, merkatuak mundu mailan integratzea ahalbidetu du.

Baina hori bezain garrantzitsua izan da finantza merkatuak desregularizatzea kapitalen mugimendu askea ezartzeko. Bestalde, merkataritzaren liberalizazio prozesuan aurrerapausoak emateko ezinbestekoak izan dira merkataritza askeko area handien sorrera (EB, ALCA, ...) eta arantzelak gutxitzeko lortutako akordioak (GATT, OMC).

Globalizazio neoliberalak multinazionalen zuzenduriko estrategia da, nazio mailako merkatuak gainditzea beharrezko baitute irabazi tasa handitu eta kapitala hedatzeko, hau da, irabaziak maximotzeko.

Gainera enpresa multinazional hauek edozein lurraldetako ekonomia ezegonkortzeko izugarritzko ahalmena izaten dute. Kapitalak, abantaila handienak eskaintzen dituzten egoerak bilatuz lurralde batetik bestera desplazatzeko duen mugikortasunak, goi mailako kokapena eman die multinazionalen, estatuetako gobernuen boterearen gainetik eta guzti.

Multinazionalen inbertsioak non kokatu edo instalazioak nora aldatu erabakitzeak ahalmen osoa dute. Eta estatuek izugarritzko sarrerak behar izaten dituzte gastu publikoari aurre egiteko. Egoera honen aurrean, estatuak, potentzia ekonomikoak buru direla, multinazionalen strategiara makurtu dira. Kapital handiak ezartzen dituen errezeta ekonomikoak babestu eta bultzatzea erabaki dute, "tarta"-ren banaketan parte hartu ahal izateko.

Politika ekonomikoko gaitan burujabetza galdu izanak, iharduera ekonomikoa eta lan harremanak desregularizatzen joatea ekarri du besteak beste. Azken helburua, multinazional eta finantza talde handien interesei ahalik eta hobekien erantzuten dieten ingurunea eta baldintzak sortzea da.

Enpresa eta merkatuen arteko konkurrentzia mundu mailakoa den eszenatoki honetan, lehiakortasuna enpresa kudeaketaren fetitxe bihurtu da.

Multinazionalen lehiakortasun maila altuagoak lortzeko, instalazioak beste lurralde edo nazio batera mugitzeko dudarik ez dute izaten, horrekin abantaila konparatibo handiagoak lortzen badituzte. Baina erabaki hauek hartzerako orduan ez dituzte lan kostuak bakarrik kontutan hartzen. Beste faktore batzuk ere aztertzen dira: esku lanaren esperientzia eta kualifikazioa, zerga presioa eta inbertsiorako pizgarriak, merkatu eta azpiegitura sarera sartzeko erraztasuna, ...

Euskal Herrian benetakoak dira industria deslokalizazioaren arriskuak ere. Azken urtetan adibide asko ezagutu ditugu: Cabot, Ericsson, Winkler, Ruwel, Chupa Chups, Volkswagen, Mercedes, Pferd Rüggeberg (Caballito), ... Kasu batzuetan kapitala eta inbertsioak joan egin dira; beste batzutan, patronalak, arrisku hau txantaia moduan erabiltzen du sindikatuei aurre egin eta soldata, lan malgutasuna, ... bezalako gaietan bere jarrera inposatzeko.

Enpresa txiki eta ertainentzat ez da hain erraza beraien inbertsioen kokapenari buruzko erabakiak hartzea. Horren ondorioz beste irtenbide bat bilatzen dute: azpikontratazioa.

ekoizpen iharduerarekin loturik dauden mantenua, biltegiatzea, garraioa, garbiketa edo beste zerbitzu profesionalak bakarrik ez dira azpikontratitzen. Industria azpikontratazioaren bidez ekoizpen katea fase desberdinetan banatzen da, ekoizpen prozesuaren zatiak lan konkretuetan espezializatuak dauden hornitzaileen esku utziz. Era berean hornitzaile hauek merkatu globalizatu batean lehiatzen dute kontratuak eta eskarien karterak lortzeko.

Ekoizpena kudeatzeko modelo hau gero eta zabalduago dago; EAE-ko merkataritza ganberen arabera industriako azpikontratazioak industriako iharduera guztiaren %27,5 ordezkatzen du.

Formula honen bidez enpresek plantilak eta kostu egitura txikitzen dituzte; hau da, merkatuak eragindako ekoizpen aldaketetara errazago eta kostu gutxiagorekin egokitzeko malgutu egiten dira. Lana antolatzeko modelo berri honek "enpresa malgu"-en sorrera ekarri du.

Hala ere, azpimarratu beharra dago enpresa pribatuek soilik ez dituztela erabiltzen metodo hauek. Administrazio publiko desberdinek ere gero eta gehiagotan pribatizatzen dituzte zerbitzuak ondoren azpikontratatzeko.

Kostuen murrizketa aitzakia moduan hartuz, zerbitzu publikoak merkatua eta lehiaren logika erabiliz antolatzen dira. Eta guzti horrek eragina du eskaintako zerbitzuen kalitatean eta azpikontratatuak langileen lan baldintzetan.

Pribatizazio politika honi bi zentzutan aurre egin behar zaio; izan ere, aipatutako ondorioez gain, lan baldintza eta soldata ezberdinak ezarriz lantegi berdinean lan egiten duten langileak zatikatzea helburu duen estrategia baita.

Guzti honek langilegoan sortzen duen zatiketak korporatibismo antzua dakartza berarekin eta oso kaltegarria izaten da sindikatuentzat, langilegoak errebindikazio eta borrokarako duen ahalmena ahulduz.

Lan malgutasunaren handitzea eta zabalitzea.

Lan malgutasuna, enpresariak, ekoizpenaren kudeaketa malgurako ahalmena handitzeko, hau da, hirugarrengoekin alderatuz lehiakortasuna lortzeko duten beste lan tresna boteretsua da.

tu frantsesean eta Alemanian 35 lan orduko astearen aldeko borrokan atzera pausuak izan dira. Badirudi, IG Metall sindikatu alemaniarrek hasitako greben porrota eta Frantziako eskuinaren botere hazkundera izan direla borroka honetan atzera pausoak bultzatu dituzten faktoreak.

Baina patronalak aurkezten duen argumentu nagusia betikoa da: lehiakortasun maila hobetzeko beharra. Aitzakia honetan oinarrituz, 35 lan orduko astea ezartzearen aurkako edo gutxienez bere ezarpena malgutzeko kontraofentsiba hasi da.


Dirudenez, Jean-Pierre Raffarin-en gobernuak 35 orduko legea lege bidez baliogabetzeari uko egin dio; baina praktikan baliogabetu egin du, ordu gehigarrien kupo legala igoz, ordu extra hauengatik ordaintzen den prima gutxituz eta enpresa txikientzat trantsizio epea hiru urtera luzatuz.

Hego Euskal Herrian ere 35 orduko lan astearen helburua guregain hartu dugu. Zentzu honetan, negoziaketa kolektiboaren bidez lanaldia murrizteak leku zentrala betetzen du LAB-en ekintza sindikalean.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da gogoratzea 35 orduko lanaldiaren errebindikazioak eta lan denboraren murrizketa esanguratsuak lortzearen aldeko borrokak langilegoaren bizitza kalitatea hobetzea baino zer bait gehiago bilatzen duela. 35 orduko astearen helburuetako bat aisia denbora gehitu eta lan, pertsona eta familia bizitza bateratzen laguntzea bada ere, lanaldiaren murrizketa lanaren eta aberastasunaren banaketarekin erabat lotuta dago.

Baina era berean, patronala, negoziaketa kolektiboez aprobetxatzen ari da, enplegu sorrerarekin loturarik ez duten lanaldiaren murrizketa oso txikien truke konbenioen iraupena luzatu eta lan baldintzak desregularizatzeko.

Lan Harremanetarako Kontseiluak (LHK) argitaratutako datuen arabera, azken hamabi urtetan urte bat baino gehiagoko iraupena duten konbenioak sinatzeko ohitura arriskutsua indartu da; bitartean, urte bateko iraupena duten konbenioak pisua galtzen ari dira negoziaketa kolektiboa orokorrean hartuz gero.




2003⁶. urtean, hitzarmen kolektiboen %8ak soilik zuen urte bateko iraupena, indarrean zeuden hitzarmenen %92,2ak urte beteko iraupena baino luzeagoa izanik. Era berean, aipatu beharra dago hitzarmenen ia %70ak hiru urte edo gehiagoko iraupena zuela.

LAB-ek ezin du iraupen hauen sinadura defendatu eta babestu, iraupena luzatzearekin patronalak bere "bake sozial"-aren estrategia indartzen baitu, modu honetan sindikatuen beste errebindikazioak indargabetuz.

Era berean, aurrerago aipatu dugun moduan, lan baldintzak desregularizatzearen truke lanaldiaren murrizketa txiki batzuk lortzera bideraturiko negoziaketa kolektibo modeloa indartzen ari da.

LHK⁷-ak, 2002. urteko negoziaketa kolektiboari buruzko informe batean, urte honetan EAE-an indarrean zeuden hitzarmenetan batz besteko lanaldia urtean 1.707 ordukoa zela aipatzen du. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eragina duten baina estatu mailakoak diren hitzarmenei dagokienez, batz beste urtean 1.741 ordu hitzartu ziren; eta EAE-an negoziatutako hitzarmenetan batz besteko lanaldia urtean 1.699 urtekoa izan zen.



Iturria: Lan Harremanetarako Kontseilua.

Kontutan hartzekoa da era berean, EAE-an erregistraturiko hitzarmenen %68ak lanaldi murrizketak barnerraturik izatea, langileen %77 baliatu zelarik hortaz. 2001. urtearekin alderatuz gero (urtekako batura) lanaldiaren batz besteko murrizketa 7 ordu eta 42 minututakoa⁸ izan zen.

⁶ Hitzarmen batzuk oraindik isteke daude.

⁷ 2003. urteko datuak behin behinekoak dira eta oraindik sinatzeko hitzarmen asko daudenez oso informazio partziala eskaintzen dute.

⁸ Kalkulu hau burutzeko LHK-ak hitzarmenak ordezkatzeko dituen lagin bat aztertzen du (hitzarmenen %96 barneratzen du eta langileen %99an du eragina). Lagin hau homogeneoa da urte batetik bestera eta modu honetan hitzarmen kolektiboaren izaera beragatik gerta daitezkeen aldaketak ez dira barneratu beharrik; izan ere urteoro sinatzen dira hitzarmen berriak eta beste batzuk sinatzeko gera daitezke.

LHK⁹-aren arabera, "hitzarmen kolektibo sektorial garrantzitsuenetan (industria siderometalurgikoa, erakuntza, ...) lorturiko murrizketak ezinbestekoak izan ziren" lanaldiaren murrizketa hau lortzeko.

Baina beharrezkoa da jakinaraztea erritmo hau jarraituz gero gutxienez beste 15 urte beharko genituzkeela asteko 35 orduko lanaldia (1.592 ordu urtean) lortzeko.

Lan malgutasunari dagokionez, onartu beharra dago lan zentroetan gero eta gehiago erabiltzen dela, urtez urte gehiago baitira urtean zehar lanaldiaren banaketa irregularra barneratzen duten hitzarmenak.

Langileen Estatutuan 1994. urtean egin zen erreformak onartu zuen lanaldia urteka batu eta hau urtean zehar irregularki banatzeko aukera. Ordudanik patronalak mekanismo ugari asmatu ditu lanaren barne antolaketa malgutzeko: erabilgarriak diren orduen poltsak, hitzartutako lanaldiarekiko malgutasun portzentaiak, 4 edo 5 txandaren ezarpena, astea 50 ordotara luzatzea, ...

Lan denboraren kudeaketa malguak ekoizpen prozesuaren eraginkortasuna handitzen du, eskulana eskariaren bilakaera eta momentuko beharretara egokitzea ahalbidetzen baitu, ordu extrem¹⁰ beharra ere gutxituz. Eta okerragoa dena, lan malgutasunak lan faktorearen produktibitatea handitzen du, eta beraz, lan postu berrien sorrera galarazten edo murrizten du.

Arrazoi honen ondorioz, LAB, lan malgutasunaren truke lanaldia murriztearen aurka dago, nahiz eta patronalak etengabe hori eskatzen duen.

Bestalde, lan malgutasuna lan baldintzen aurka doa, patronalak lan denbora ordenatzeko duen eskumen margina handitu eta plantilak enpresaren zerbitzura jasan behar duen erabilgarritasun maila igotzen baitu.

Patronalak, barne malgutasun handiagoa lortzera bideraturiko eskaerak etengabe barneratzen ditu negoziaketa kolektiboan, Europa ekialdeko edo Asiako lurraldeen ondorioz gerta daitekeen industria deslokalizazioarekin mehatxatuz edo lanaldi murrizketa txiki batzuk eskainiz.


Soldaten murrizketa nagusitzen da.

Lana faktorearen prezioak (lan kostua) garrantzia handiagoa hartu du inbertsioak kokatzerako unean kapitala eta teknologia oso ekoizpen faktore malguak diren globalizazio ekonomikoaren baitan. Nazioarteko kapitalak, lehia abantailak bilatzen ditu kokapena erabakitzerakoan; lanaren produktibitate handiagoa eta lan kostu txikiagoa besteak beste (hala ere lehen aipatu dugun moduan beste elementu batzuk ere kontutan hartu behar dira).

⁹ Nafarroari buruzko informazio zehatzegia ez badugu ere, INE-ren arabera 2003. urteko laugarren hiruhilekoan herrialde honetan hitzarturiko lanaldia hilabetean 156,2 ordukoa zen, eta EAE-an hilabetean 154,8 ordukoa.

¹⁰ 1994. urteko lan erreformak ordu ekstrak gutxienez ordu normal baten balioaren %75eko gainprezioarekin ordaintzeko behar legela ere ezabatu zuen.

Zentzu honetan, ekonomia baten lehia modeloa zenbat eta defendakorragoa izan, orduan eta arrisku handiagoa izango du deslokalizazioaren aurrean; hau da, ekoizpen sistemak teknologia eta giza kapitalean (formakuntza) inbertituz balio erantsi handiaren lorkuntzan oinarriturik egon behar du, eta ez kostuen murrizketan. Hain zuzen ere formakuntzan eta ikerkuntza, garapen eta berrikuntzan (I+C+B) burutzen den esfortzu txikiagoa (inguruneko beste ekonomiekin alderatuz) da gure ekonomiak erakusten duen ahulezietako bat. Balio erantsi ertain-baxukoa den eta kostuetan lehiatzera zuzendurik dagoen lehia estrategiaren alde apustu egin duen ekoizpen sistema baten ohiko ezaugarria da hau.



Iturria: LHK, INE eta Lan eta Gizarte Gaietarako Azpidazkaritza.

Ekonomilari askoren ustez, 1994. urteko erreformaren ondoren hautematen den soldaten murrizketa erreformak berak bultzatu zuen. Iritzi honen arabera, ordudanik, negoziaketa kolektiboetan, oso ohikoa da soldata igoerak eskatu ordez lan malgutasuna edo mugikortasun funtzionala eta geografikoaren¹¹ moduko errebindikazioak defendatzea.

Bestalde, soldata eskala bikoitza, diskriminazio eragilea eta gaitzesgarria den arren, asko zabaldu da azken urteetan autogintza edo bankaren moduko sektoreetan. Orokorrean, enpresan sartzen direnekin kategorია bat osatzean datza, eta lan berdina egin arren soldata txikiagoa kobratzen dute langile berriek.

¹¹ 1994. urteko erreformak gai hauetan asko aurreratu zuen, patronalak lan hairemanetan zuen aginte postua hobetuz.

Aurrekoarekin loturik, aipatu beharra dago Gizarte Segurantzaren lehenengo aldiz izena ematen duten pertsonen batz besteko kotizazio oinarria oso txikia¹² izaten dela dagoeneko kotizatzen daudenarekin alderatuz gero. Aintzinasunak eta beste osagarriek dituzten efektuez gain, datu honek, batez ere immigrante, gazte eta emakumeei zuzendurik sortzen ari den "zabor lanaren" berri ematen du. Soldata diskriminazioaren ondorioz, emakumeek, batz beste, gizonezkoek baino %33 gutxiago kobratzen dute.

Ondorengo taulan ikus daitekeen moduan, soldatek aberastasunaren banaketan duten parte hartzea ez da gehiegi handitu soldaten murrizketa eta soldata eskala bikoitzen ondorioz. Azpimarratu beharra dago Hego Euskal Herrian biztanlego landuna %24 hazi zela 1995 eta 2001 urteen artean.

Soldatek eta irabaziek BPG-ean duten parte hartzea

HEGO EUSKAL HERRIA	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001
Soldatak	52,3%	52,4%	52,3%	52,6%	52,5%	52,6%	52,9%
Ustiapeneko soberakin gordina	39,2%	38,9%	38,6%	38,0%	37,5%	37,4%	37,3%

Iturria: INE. 1999, 2000 eta 2001. urteei dagokien informazioa behin behinekoa da.

Gaiaz aldatuz, datu esanguratsua da Hego Euskal Herriko lan kostuak Europar Batasuneko baxuenetakoak izatea. Eurostat-en¹³ informe baten arabera, gure herriko lan kostuek Espainia, Portugal eta Greziako lan kostu baxuak soilik gainditzen dituzte; baina elkartzeko hautagaiak diren Ekialdeko lurraldeen batz besteko kostua hirukoizten dute. Beraz, garbi dago soldatetan ezin dugula lehiatu ez beraiekin eta ezta asiar herrialdeekin ere.

Era berean ezin da ahaztu espainiar gobernuak ezarritako Lanbidearteko Gutxieneko Soldata Portugalgoaren ondoren EB guztiko baxuena dela. Gaur egungo LGS-ak Hego Euskal Herriko batz besteko soldataren herena suposatzen du, eta Europako Gutun Sozialak gomendatutako %60tik oso urrun geratzen da.

Lan merkatuaren desregulazioa eta prekaritatea.

Dagoeneko garbi geratu da patronalak lan kostuak gutxitu eta lanaren antolaketa malgutzeko tresna ugari dituela. Baina guzti hau ezinezkoa izango litzateke botere publikoen parte hartzerik (egiteagatik edo utzikeriagatik) gabe.

Langilegoa eta patronala aurrez aurre jartzen dituen interesen gatazkan (bai enpresa pribatuan eta baita publikoan ere), Estatu mailako PSOE eta PP-ko gobernuak eta Iruñea eta Lakuako gobernu autonomikoek kapitalaren alde egin dute. Hala ere, lan harremanak¹⁴ desregulatzera zuzenduriko lege aldaketak bultzatuz, landuz eta onartuz botere estatalek jokatu duten papera azpimarratu beharra dago.

¹² Batz beste %40 gutxiago espainiar Estatuan, Gizarte Segurantzak 2001. urtean eginiko informe baten arabera.

¹³ Europako Estatistika Institutuak egindako informeak industria eta zerbitzuek 2000. urtean zuten lan kostua aztertzen du.

¹⁴ Espainiako Konstituzioko 149. artikulua lan legedian erabateko kompetentzia onartzen dio Estatuari. Hala ere, administrazio autonomikoetan agindu duten partidu garrantzitsuenek (PNV, UPN eta CDN) ere txalotu dituzte gobernu zentralak onarturiko aldaketak.

Maila normatiboko aldaketa hauen helburua lan harremanak enpresaren ingurunera murriztea da. Patronalari, enpresetan, erabakitze ahalmen handitzearen ondorioz, kapitala eta lanaren arteko indar harremanean dagoen desoreka areagotu egin da.

Estatuek kapital handiaren alde jasan duten subirautea ekonomikoaren galerak eta lan harremanak etengabe enpresen alde desregularizatu izanak, desitxuratu egiten du gobernuak aurrera eraman behar lukeen kontrabotere politikoa. Guzti horren ondorioz, gaur egun, ardua handiagoa dugu langilegoaren eskubide eta interesen berme moduan sindikatu mailako kontraboterea indartzekoan.

Lan egonkortasunaren aurkako lehenengo asialtoa PSOE-k 1984. urtean Langileen Estatutuan burutu zuen erreformarekin gertatu zen. Lanerako bidea erraztearen aitzakiarekin Enpleguaren Sustapenerako Aldi Baterako Kontratua sortu zen, kausarik gabeko behin behineko kontratazioa ahalbidetzeko.

Kontratazioaren kausalitate printzipioaren hausturak prekaritatearen izugarritzko garapena ekarri zuen, eta izaera mugagabea zuten lanak burutzeko, hau da, behin behineko izaera zuten ekoizpen beharrei erantzuten ez zieten lanak burutzeko, kontratu mota hau erabiltzen hasi ziren.

Kontratu honek gehienez hiru urteko iraupena zuen eta lan egindako urte bakoitzeko 12 eguneko soldata adinako kalte ordaina eskaintzen zuen; kontratu mugagabearen kasuan eta kaleratzea bidegabea¹⁵ denean 45 eguneko da. Bestalde, bere iraupena bukatzean Enpleguaren Sustapenerako Aldi Baterako Kontratua iraingitzen bazen kaleratzearen tramitazioarako kostuak ez ziren ordaindu behar.

Aldi Baterako kontratuak egiteko aukerak malgutzean, enpresek, eskaria gutxitzean plantila egokitzeko zuten kudeaketa ahalmena handitu egin zen. Gertaera hau eta ESABK-en kaleratze kostua txikiagoa izatea dira kontratu hauek azkar zabaltzearen arrazoiak.

ESABK-ek izugarritzko eragina izan zuten lan prekaritatearen indartzean eta 1984. urteko erreformaren ondoren espainiar Estatuko aldi baterakotasun tasa ia hirukoiztu¹⁶ egin zen.

1994. urtean reforma berri bat egin zen Enpleguaren Sustapenerako Aldi Baterako Kontratua ezabatuz. Hala ere, aldi baterakotasun tasa gutxitzeko arazo handiak izan ziren; besteak beste, patronalak, ESABK-en ordezkari Ekoizpenagatiko eta Obra edo Zerbitzuagatiko Aldi Baterako Kontratuak sortu zituelako.

Ordurarte, aldi baterako kontratu hauek kausalitate eran erabiltzen ziren, hau da, sortu ziren helburuari loturik. Baina kontratazioan kausalitate printzipioa berreskuratzeko saiakerak, aldi baterako kontratazioan oso zabaldua zegoen lege iruzurrarekin topo egin zuen.

¹⁵ Kaleratzea bidegabea dela erabakitzen bada lan egindako urte bakoitzeko 45 eguneko da kalte ordaina, gehienez 42 hilabete izanik. Kaleratzea bidezkoa bada, aldiz, kalte ordaina 20 eguneko da eta 12 hilabete gehienez.

¹⁶ EPA inkesta 1987. urteko bigarren hiruhilekoan hasi zen aldi baterako enpleguaren inguruan informazioa ematen eta ordurako espainiar Estatuko aldi baterakotasun tasa %15,5ekoa zen. 1995. urtean aldi baterakotasuna soldatapeko langilegoaren %35ekoa zen. 1984. urtean aldi baterakotasun tasa %11 ingurukoa zela uste da.

Enpresariak, izaera iraunkorreko lanak egiteko aldi baterako kontratuak etengabe berritzeko duten joera hau, gaur egun ere mantentzen da. Botere publikoek orokorrean, eta lan agintaritzak bereziki, gertaera hau onartu egiten dute, ez baitituzte egokiak diren lege, kontrol edo ikuskaritza tresnak sortzen.


1994. urteko erreformak porrot egin zuen aldi baterakotasunaren euspenean, kontratu partzialak bultzatu zituen, enpresetan esku lanak zuen antolaketa malgutu zuen, "kaleratze objetiboa" erraztu zuen horretarako arrazoiak zabalduz eta Aldi Baterako Laneko Enpresak (ABLE) legeztatu zituen.

ABLE-en legeztatzearekin esku lanaren uztea edo "trafikoa" onartua izan zen; aurrez ere erabiltzen zen, debekatuta egon arren.

ABLE-ak segituan egin ziren famatu langileak lagatzeko kontratuei ezarri zieten prekaritate kondizio izugarrien ondorioz: iraupen oso motzak, gehiegizko lan errotazioa, eskubide sindikalen galera, soldata baxuagoak lan berdina egiteagatik, ... Klasearen domeinu tresna garrantzitsuenean bilakatu ziren ABLE-ak.

Langilegoaren zatiketa eta lan merkatuaren bikoizketa areagotu egin ziren lan bitartekaritzan ABLE-ak agertu zirenean. ABLE-ek lan merkatuan zuten bitartekaritza ahalmena izugarri handitu zen eta 1998. urtean Hego Euskal Herrian sinatu ziren aldi baterako kontratuen %26,5 kudeatzera iritsi ziren.

Baina 1999. urtetik aurrera, ABLE bidez kontratatutako langileen soldatak eta enpresako gainerantzeko langileen soldatak berdindu egin ziren, eta zenbait iharduera eta sektore arriskutsuetan debekatu egin zen ABLE bidez kontratatzea. Gainera, negoziaketa kolektiboaren bidez ere egin dira ABLE-en erabilera murrizteko saiakerak.



Bazirudien erreforma eta murriztapen guzti hauekin ABLE-en zabalkuntza moteldu egingo zela. Hala ere, 2003. urtean Hego Euskal Herrian guztira sinaturiko aldi baterako kontratuen %21 ABLE bidezkoak izan dira. Gaur egun ere, langileak lagatzeko kontratu mota hauek duten iraupen laburra da arazo nagusia. ABLE bidezko kontratuak batz besterik hiru asteko iraupena dute, eta gazteriak jasaten duen prekaritate maila altuaren erantzule nagusiak dira neurri handi batean, modu honetan kontratatutako pertsona gehienak 20 eta 30 urte arteko gazteak baitira.

Hala ere, ABLE bidezko kontratazioaren murrizketa hau irudikeria hutsa da. ABLE batzuk azpikontrata bihurtu dira eta beste batzuk euren zerbitzuetako pseudo-enpresak sortu dituzte, langileak lagatzeko kontratuak ezkutaturik geldituz. ABLE-en elkarte batzuk ere salatu dute azpikontrata hauek euren esparruan sartzea, eta lan legediak uzten dituen aukerei ematen diote horren errua.

Mozorrotutako "ABLE" hauen iharduera ez dago juridikoki erregulatutik, baina praktikan funtzionatzen jarraitzen dute, ABLE-ei onartzen ez zaizkien sektore eta ihardueretan batez ere. Botere publikoen inhibizioa eta lan agintaritzaren arduragabekeria ere agerikoak dira iruzur hauetan.

1997. urtean CCOO eta UGT-k PP-ko gobernuarekin eta CEOE eta CEPYME patronalekin hitzarturiko lan erreformak ere ez zituen hobekuntza nabariak ekarri aldi baterakotasunaren murrizketan. Kontratazio mugagabea indartzeko ustezko helburuarekin, kaleratzea bidegabea denean ohiko kontratu mugagabeak eskaintzen duen kalte ordaina baino txikiagoa¹⁷ eskaintzen duen kontratu mugagabe mota berri bat sortu zen.


Hasiera batean Kontratazio Mugagabearen Sustapenerako Kontratu berri hau lan merkatuan sartzeko zailtasunak zituzten pertsonen zuzendurik bazegoen ere, errealitatean helburu zuen kolektiboa oso zabala zen eta mugagabe bihurtzen ziren aldi baterako kontratuak ere mota honetakoak ziren.

Kontratu mugagabe berriak kaleratzeagatik berme txikiagoa du, kalte ordain murriztagoa eskaintzen baitu; eta bitartean, enpresariak, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotetan hobari garrantzitsuak jasotzen hasi ziren. Era berean, aipatu beharra dago erreformak kaleratzea errazten eta merketzen jarraitu zuela, "arrazoi objetiboengatik" kaleratzea ahalbidetzen duten aukerak zabalduz.

Aldi baterakotasunaren bilakaera aztertuz gero esan daiteke erreforma hauek guztiak ez direla oso eraginkorrak izan prekaritateari aurre egiteko. Azken urteetan aldi baterakotasun tasak portaera erratikoa eta aldakorra izan du, nahiz eta EPA-ren datuen arabera Nafarroan gutxitzeko joera ahul bat erakutsi.

¹⁷ 1997. urtean sortutako Kontratazio Mugagabearen Sustapenerako Kontratu berriak lan egindako urte bakoitzagatik 33 eguneko kalte ordaina ezartzen du, 24 hilabetekoa izanik gehienez. Ohiko mugagabearen kalte ordaina 45 eguneko da eta 42 hilabeteko limitea.

Kontratu mugagabea duen soldatapeko biztanlegoa



Iturria: INE eta EUSTAT.

Aldi baterakotasuna gutxitzeari dagokionez, kaleratze "merkea" zuen kontratu mugagabe berriarekin lortu ziren emaitzak eskasak eta kontraesankorrak izan ziren. Hala eta guztiz ere, 2001. urtean PP-ko gobernuak lan erreforma berri bat onartu zuen 1997. urtean CCOO eta UGT-rekin sinaturiko erreformari jarraipena emateko.

1997. urtean ezarritako aldaketa batzuk sakondu eta garatzeko helburuarekin, erreforma berriak zabaldu egin zuen hasiera batean kontratu mugagabe berria zuzendurik zegoen gizataldea. Enpresariak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuoten hobari programa berri bat ere onartu zen.

Espaniako gobernuak kontratazio mugagabeari zuzenduriko subentzio programa martxan jarri zuenetik estatu guztian 10.600 milioi baino gehiago geratu dira kobratzeke. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan soilik, enpresariak, 2000. urtean, 124,6 milioi euro inguru aurreztu zituzten hobarietan, hau da, hiru herrialde hauetan Gizarte Segurantzazatik jasotako kuoten %3.

Kontratu mugagabe¹⁸ berriaren jarraipena luzatzean garbi geratu da erreformaren helburua ohiko mugagabea pixkanaka desagertaraztea dela, etorkizunean kontratazio mugagabe modelo berriak ordezkatu arte. Azken helburua garbia da: kontratu mugagabeen kaleratze kostua murriztea, mugagabe guztiena.

¹⁸ Kontratazio Mugagabearen Sustapenerako Kontratu berriaren erabilera lau urteko epe baterako onartu zen 1997. urtean. Epe honen amaieran erabakiko zen bere erabilera luzatzeko aukera.

Beste neurri bat ere hartu zen: interinitate, formakuntza eta txertatze kontratueta izan ezik, gainerantzeko aldi baterako kontratuen amaieran zortzi egunetako kalte ordaina ezarri zen.

Neurri hauez gain (eta arrazoi jakinengatik aipatuko ez ditugun beste batzuek gain) aldi baterakotasun tasak maila eskandalugarrietatik jaisteko zailtasun handiak erakusten ditu. Horren ondorioz, Komisio Europarrak eta OCDE-ek ere espainiar gobernuari lan prekaritate izugarri hau zuzen dezala eskatu diote.

Hego Euskal Herriko prekaritate baldintzak izugarriak dira eta ez dago Europar Batasunekoekin konparatzerik, bertan aldi baterakotasun tasa batzuek beste %13koa baita. Bestalde, gazteriak lanean bizi duen segurtasun eza jasanezina da eta familiak betetzen duen "koltxoi efektuari" esker soilik azal daiteke. Hala ere, gazteriak bizitza proiektu independente bat garatu ahal izateko zailtasun handiak gaintu behar ditu.

Bataz besteko aldi baterakotasun tasak 2003. urtean zehar

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA ¹⁹
GIZONAK	23,5%	29,2%	28,2%	19,8%
EMAKUMEAK	42%	39,8%	37,2%	27,4%
GAZTEAK	72,4%	73,8%	70,7%	58,8%

Iturria: INE eta EUSTAT.


Aldi baterako kontratazioan dauden forma ezberdinak gehiegi erabiltzeak, ABLE-ak erabiltzeak eta azpikontratazioara gero eta gehiago jotzeak lan errotazio handia sortzen dute, lan postuan beharrezkoa den esperientzia hartzea galaraziz. Gaur egun Hego Euskal Herrian sinatzen diren kontratuen %92 baino gehiago aldi baterakoak dira. Gainera, aldi baterako kontratuen %98,4ak urte bete edo gutxiagoko iraupena dute eta %77ak ez ditu hiru hilabete gaintzen.

Lan segurtasun eta osasunaren ikuspuntutik argi dago lan errotazioa arrisku faktore gehigarri bat dela. Postuan esperientzia ez izateari, aldi baterako enpleguek normalean izaten dituzten lan baldintza kaxkarragoak eta formakuntzan enpresariak burutzen duten esfortzu txikiagoa gehitu behar zaizkie.

Ezaugarri guzti hauek istripu arriskua areagotu egiten dute. Izan ere, lan istripu indizea, kontratu mugagabea duten langileen artean %52,5koa da, eta aldi baterako lan harremana dutenean, aldiz, %117,2ra igotzen da. Grafikoan ikus daitekeen moduan, 1994. urtean ABLE-ak legeztatu zirenetik lan istripu kopurua izugarri handitu da aldi baterako kontratua duten pertsonen artean.

Lan baldintza kaxkarrekin, segurtasun ezarekin, istripuekin, eta batzutan bizitza berarekin langilegoak

¹⁹ INE-k Nafarroarako eta EUSTAT-ek EAE-rako eskaintzen dituzten aldi baterakotasun zifren arteko diferentzia handia susmagarria da. EPA inkestak Nafarroari buruz kaleratzen dituen datuak askotan jarri izan dira zalantzan, baina herrialde honetarako ez dago beste estatistika ituririk.



Iturria: Lan eta Gizarte Gaien Ministeritza eta INE.

ordaintzen duen kostu altuaz gain, gaur egungo lan harreman modeloek sortzen duen prekaritateak muga handiak jartzen dizkio formakuntza jarraiarri. Formakuntzan ematen den defizit honek produktibitatearen galera handia dakar berarekin.

Beraz, formakuntza jarraia eta segurtasunean inbertitzea geroz eta garrantzitsuagoak dira, ez laneko osasunaren berme modura soilik, baita lehia eta enplegu kalitatearen iturri modura ere.

ERANSKINA.

EKONOMIKOKI AKTIBOA DEN BIZTANLEGOAREN SAILKAPENA

16 urte edo gehiagoko pertsonak	Biztanlego aktiboa	Biztanlego landuna	Besteren kontura lan egiten dute	Kontratu mugagabedun soldatapeko biztanlegoa
				Aldi baterako kontratudun soldatapeko biztanlegoa
			Norbere kontura lan egiten dute	Enpleatzaileak
				Langile independenteak
				Kooperatibistak
				Familia laguntza
		Biztanlego langabetua	Lehen enpleguaren bila dabilta	
			Lehendik lana egin dute	
	Aktiboa ez den biztanlegoa	Ikasleak		
		Etxeko lanak		
		Jubilazioa		
		Beste pentsioa		
		Ezgaitasuna		

HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MUNDUAREN EGOERA

Urteko bataz besteko balioak - EPA

SEXU BIOK	2003	2002	Desb.
LANDUNAK	1.146.775	1.123.550	23.225
LANGABETUAK	105.750	106.350	-600
AKTIBOAK	1.252.525	1.229.900	22.625
LANGABEZI TASA	8,4	8,6	-0,2
ENPELGU TASA	51,1	50,1	1,0
JARDUERA TASA	55,8	54,8	0,9
ALDIKOTASUN TASA	27,0	29,0	-2,0
16 urtetik gorako biztanleria	2.246.050	2.243.400	2.650

SOLDATAPEKOAK	
Guztira	924.725
Mugagabeak	674.800
Aldi baterakoak	249.925
LANGABEZIAN	
Urtebete +	45.075
2 urte +	29.175

EMAKUMEAK	2003	2002	Desb.
LANDUNAK	460.950	437.225	23.725
LANGABETUAK	60.825	66.975	-6.150
AKTIBOAK	521.775	504.200	17.575
LANGABEZI TASA	11,7	13,3	-1,6
ENPELGU TASA	40,0	38,0	2,0
JARDUERA TASA	45,2	43,8	1,4
ALDIKOTASUN TASA	32,9	36,7	-3,7
16 urtetik gorako emakumeak	1.153.550	1.151.275	2.275

SOLDATAPEKOAK	
Guztira	388.925
Mugagabeak	260.775
Aldi baterakoak	128.150
LANGABEZIAN	
Urtebete +	29.075
2 urte +	20.075

GIZONAK	2003	2002	Desb.
LANDUNAK	685.825	686.325	-500
LANGABETUAK	44.950	39.425	5.525
AKTIBOAK	730.775	725.750	5.025
LANGABEZI TASA	6,2	5,4	0,7
ENPELGU TASA	62,8	62,8	-0,1
JARDUERA TASA	66,9	66,5	0,4
ALDIKOTASUN TASA	22,7	23,7	-1,0
16 urtetik gorako gizonak	1.092.475	1.092.100	375


SOLDATAPEKOAK	
Guztira	535.775
Mugagabeak	413.975
Aldi baterakoak	121.800
LANGABEZIAN	
Urtebete +	16.025
2 urte +	9.100

GAZTEAK (<25 urte)	2003	2002	Desb.
LANDUNAK	90.425	95.875	-5.450
LANGABETUAK	24.650	24.450	-200
AKTIBOAK	115.075	120.325	-5.250
LANGABEZI TASA	21,4	20,3	1,1
ENPELGU TASA	33,3	33,3	-0,0
JARDUERA TASA	42,4	41,8	0,6
ALDIKOTASUN TASA	67,5	67,9	-0,4
16 urtetik 25era	271.175	287.700	-16.525

SOLDATAPEKOAK	
Guztira	83.675
Mugagabeak	27.200
Aldi baterakoak	56.475
LANGABEZIAN	
Urtebete +	6.925
2 urte +	4.000


Iturria: INE

Iurria: EPA inkesta. Serie guztiak metodologia berriaren arabera berrikusiak




HEGO EUSKAL HERZIRO LAN MUNDUAREN EUOERA

Urteko batez besteko balioak - EPA





Iturria: EPA inkesta. Serie guztiak metodologia berriaren arabera berrikusiak.




Iturria: EPA inkesta. Serie guztiak metodologia berriaren arabera berrikusiak.

Iturria: EPA inkesta. Serie guztiak metodologia berriaren arabera berrikusiak







Inurria: EPA inkestia. Serie guztiak metodologia berriaren arabera berrikusiak

